
***HERRI KIROLETAKO EUSKAL ETA LURRALDE
FEDERAZIOEN ARAUDIA, ABERE-PROBAK
EGITEKO ETA BERTAN PARTE HARTZEN
DUTEN ANIMALIEN DOPINAREN AURKA
BORROKATZEKO***

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da, abere-probei dagokienez, herri kirolen federazioetan aplikatu beharko den araudi-esparrua erregulatzeko, bai ekitaldi horiek egiterakoan, bai parte hartzen duten animalien dopinaren aurka borrokatzeko orduan.

Araudi honetan aurreikusitakoak ez die kalterik egiten animalien ongizatea babesteari buruzko beste esparru batzuei, zeintzuen eskumena kirol federazioetatik aparteko beste agintari batzuei dagokien; era berean, ez die kalterik egiten abere-probetan aplika daitezkeen beste federazio-araudiei ere.

2. artikulua. Definizioak

Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, definizio hauek finkatu dira:

- a) Dopina: ekidoei edo behien familiakoei substantzia debekatuak ematea edo aplikatzea, edota metodo debekatuak erabiltzea beren kirol-errendimendua modu artifizialean areagotzeko. Hori kirol-arauden aurkako ekintza da. Dopintzat hartzen dira, era berean, araudi honen menpeko edozein pertsona fisiko edo juridikok egindako eta araudi honetan aurreikusitako arau-haustea.
- b) Animaliak: kirol-ekitaldietan parte hartzen duten ekidoak edo behien familiakoak.
- c) Abere-probetan parte hartuko duten animalien titularrak: animalien jabeak edo animalien erabilera-eskubideen titularrak izanik, abere-probetan parte hartzen dutenak.
- d) Probalariak: abere-probetan, animaliekin batera doazen pertsonak, bai animalien titularrak direlako, edo bai hala adostu edo hitzartu dutelako animalien titularrarekin.
- e) Ekitaldien antolatzaileak: abere-proba martxan jartzea eta aurrera eramatea erabakitzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, irabazi asmoa dutenak zein irabazi asmorik gabekoak, eta ekitaldi horretatik eratorritako erantzukizunak edo betebeharrak beren gain hartzen dutenak, parte-hartzaileen, ikusleen, erakundeen edo edozein hirugarrenen aurrean.

- f) Epailleak: abere-probak gainbegiratzeaz eta ekitaldi horien kontrol teknikoaz arduratutako kirol federazioak izendatu dituen pertsona fisikoak.
- g) Federazio-lizentziak: artikulua honetako c), d), e) eta f) ataletan adierazitako kolektiboek derrigorrez izan beharreko tituluak, federazioek esleituak.
- h) Kirol federazioak: herri kiroletako euskal eta lurralde federazioak, eskumena duten agintariak emandako funtzio publiko administratibo jakin batzuk betetzen dituzten erakunde pribatu gisa.
- i) Ekitaldietan parte hartuko duten animalien erregistroa: Herri Kiroletako Euskal Federazioaren erregistroa, non inskribatuta egon beharko duten abere-probetan parte hartzera bideratutako animaliak, beren titularra nor den ere berariaz adierazita.
- j) Abere-probak: deman oinarrituta dauden eta kirol izaera duten ikuskizun publikoak, non animaliek hartzen duten parte, edozein dela ere ikuskizun horren izaera, tipologia, izendapena edo forma (txapelketak, liga erregular baterako balio duten probak, erakustaldiak, lehiaketak, desafioak eta abar).

3. artikulua. Eremu subjektiboa

Araudi honen aplikazio-eremu subjektiboa hurrengo artikuluan ezarritako eremu subjektiboaren barruan dauden eta euskal federazio-lizentzia duten pertsona eta erakunde guztiei zabalitzen zaie.

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren abere-probetako jarduera eta lehiaketa federatuetan parte hartuko duten pertsonak federazio-araudi honen aplikazio-eremuaren barruan geratuko dira, euren egoitza efektiboa edo animalien egonaldi-guneak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora badaude ere.

4. artikulua. Eremu objektiboa

Araudi honen aplikazio-eremu objektiboa autonomia-esparruko eta kirol arloko jarduera eta lehiaketa federatuek baldintzatuko dute, izaera ofiziala izan zein ez.

5. artikulua. Lurralde-eremua

Lurraldeari dagokionez, araudi honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

II. TITULUA ABERE-PROBAK

6. artikulua. Ekitaldi motak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan abere-proba federatuak baino ezin izango dira egin, kirol federazio batek baimendutakoak eta berariaz agertzen direnak herri kiroletako euskal edo lurralde federazioek horretarako ezarritako egutegian.

2.- Artikulu honetan adierazitakoak ez die kalterik egiten indarrean dauden xedapen arauemaile sektorialetan ezarritakoaren arabera nahitaezkoak izan daitezkeen beste ezein baimeni.

3.- Abere-probek maila hau izan dezakete:

a) eremuaren arabera: lurralde mailakoa edo autonomia mailakoa.

Lurralde mailako abere-proben kasuan, ekitaldien inguruko baimena eta kontrola ekitaldi hori egiten ari den lurralde historikoko herri kiroletako lurralde federazioari dagozkio.

Autonomia mailako abere-proben kasuan, baimena eta kontrola Herri Kiroletako Euskal Federazioari dagozkio.

b) izaeraren arabera: ofizialak edo ez-ofizialak.

Abere-proba**ofizialak** dira federazio-tituluak ematen dituzten probak edo kirol federazio baten titulartasuneko lehiaketetarako baliagarriak direnak.

Gainerako abere-probak **ez-ofizialak** dira; hau da, federazio-titulurik ematen ez dutenak edo kirol federazio baten titulartasuneko lehiaketetarako baliagarriak ez direnak.

4.- Kirol federazio bakoitzaren egutegian, berariaz egon beharko da jasota abere-proba bakoitzaren izaera ofiziala edo ez-ofiziala.

7. artikulua. Ekitaldia egiteko baimena

1.- Abere-proba federatuen antolatzaile ororen betebeharra da dagokion kirol federazioaren baimena lortzea: euskal federazioarena edo lurralde mailako federazioarena, proba edo jarduera bakoitzak duen izaeraren edo motaren arabera (ofiziala edo ez-ofiziala) eta berau egingo den lekuaren arabera (lurralde mailakoa edo autonomia mailakoa).

2.- Ekitaldia egin edo hasi aurretik eskatu beharko da baimena; zehazki, hamar egun balioduneko aurrerapenez. Kirol federazioak horretarako ezarritako eta ekitaldiaren antolatzaileak behar bezala bete eta sinatutako ereduarekin batera, dokumentu edo informazio hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Ekitaldiaren deskribapena: eguna(k), ordua(k), lekua, izendapena eta erakunde antolatzailea.
- b) Erakunde antolatzailearen arduraduna: izen-abizenak eta harremanetarako datuak.
- c) Ekitaldiaren erregulazio zehatza edo arau espezifikoak.
- d) Ekitaldiko parte-hartzaileak: animalien titularren, probalarien eta parte hartuko duten animalien identifikazioa.
- e) Ekitaldiko sariak.
- f) Dopin-kontrolerako gunea non kokatuko litzatekeen.

3.- Aurkeztutako baimenak zuzentzeko edo konpontzeko moduko hutsak baditu, dagokion kirol federazioak dagokiona zuzentzeko eta aurkezteko eskaera egingo dio eskatzaileari, hiru egun balioduneko epea emanda. Ezarritako epearen barruan ez bada eskatutakoa zuzendu edo behar bezala aurkeztu, ekitaldiari dagokion baimen-eskaera artxibatuta geratuko da, eta ezin izango da ekitaldia egin.

4.- Aurkeztutako baimenak horretarako ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu, kirol federazioak dagokion baimen-agiria emango du. Ekitaldiaren antolatzaileak fideltasunez eta osotasunean errespetatu beharko ditu aurkeztutako eskaeran adierazita zeuden puntuak, bai eta federazioak emandako edozein xedapen edo jarraibide ere, baimen-agirian nahiz kirol federazioaren araudietan edota zirkularretan jasotakoak.

5.- Baimena nahitaezkoa izango da, edozein dela ere probaren izaera, tipologia, izendapena edo forma (txapelketak, liga erregular baterako balio duten probak, erakustaldiak, lehiaketak, desafioak eta abar).

6.- Jakingo balitz abere-probaren bat egingo dela araudi honetan aurreikusitako baimenik gabe, dagokion kirol federazioak eskumena duten administrazio-agintariei emango lieke egoeraren berri. Atal honetan jasotako jakinarazpenak ez dio kalterik egiten araudi honetan aurreikusitako diziplina-araubide zehatzaileari.

8. artikulua. Ekitaldietan parte hartzea

1.- Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan behar bezala inskribatuta ez dauden animaliek ezin izango dute abere-probetan parte hartu.

2.- Abere-probako jarduera edo lehiaketa batean parte hartzeko, animaliak inskribatuta egon beharko du Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan, ekitaldia egin baino hogeita hamar egun lehenagotik, gutxienez.

3.- Animalia-aren titularraren inguruan aldaketaren bat dagoenean, titular berriak behar bezala inskribatu beharko du Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan.

4.- Abere-probetan parte hartzekoak diren animalien titularrek indarrean dagoen federazio-lizentzia izan beharko dute, kirol diziplina horretako edozein proba edo jardueratan parte hartu ahal izateko.

5.- Probalariek indarrean dagoen federazio-lizentzia izan beharko dute, kirol diziplina horretako edozein proba edo jardueratan parte hartu ahal izateko.

6.- Antolatzaileek indarrean dagoen federazio-lizentzia izan beharko dute, kirol diziplina horretako edozein proba edo jarduera antolatu ahal izateko.

7.- Epailak indarrean dagoen federazio-lizentzia izan beharko dute, kirol diziplina horretako edozein proba edo jardueratan epaile gisa parte hartu ahal izateko.

8.- Artikulu honetan aurreikusitako federazio-lizentziak dagokion lurralde federazioak izapidetuko ditu, eta Herri Kiroletako Euskal Federazioak emango ditu. Federazio-lizentzia horien indarraldia urtebetekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n iraungiko dira, edozein dela ere beren jaulkipen-data.

9.- Araudi honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, animalien titularrek abere-probetako parte-hartzaile izaera dute, eta probalariek, berriz, ekitaldi horietako esku-hartzaile izaera.

9. artikulua. Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroa

1.- Herri Kiroletako Euskal Federazioak Animalien Erregistroa izango du, eta, bertan, abere-probetako ekitaldi edo jardueretan denboraldi batez parte har dezaketen animaliak egongo dira inskribatuta.

2.- Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan, abere-probetako ekitaldi edo jardueretan parte hartzekoak diren edo parte hartzen duten animaliak agertuko dira. Animalia bakoitzari dagokionez, animalia-aren titularra berriaz egongo da jasota, eta titularrak indarrean dagoen federazio-lizentzia izan beharko du.

3.- Herri kiroletako lurralde federazioek eta abere-proben antolatzaileek Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroa kontsultatzeko aukera izango dute.

III. TITULUA.

KOLEKTIBO BAKOITZAREN ERANTZUKIZUNAK

10. artikulua. Erantzukizun orokorra

Araudi honen menpe geratzen diren pertsona eta erakundeek nahitaez bete beharko dituzte une bakoitzean aplikagarriak diren xedapen arauemaileetan berariaz aurreikusitako betebeharrak, erantzukizunak eta zereginak. Pertsona eta erakunde horiek aplikagarriak diren arauak haustea dakarten ekintzak edo omisioak ezagutzeko erantzukizuna izango dute.

11. artikulua. Abere-probetan parte hartzekoak diren animalien titularren erantzukizunak

1.- Hauek dira abere-probetan parte hartzekoak diren animalien titularren erantzukizunak, dopinari dagokionez:

- a) Dopinaren aurkako eremuan aplikagarriak diren xedapenak ezagutzea.
- b) Lankidetzan aritzea beren animalien dopin-kontrolen prozesuetan, bai eta eskatzen zaien informazio guztia ematea ere.
- c) Dopinaren aurkako edozein arau hautsi dela jakinez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta eskumena duten erakundeen aurrean salatzea egoera hori.
- d) Dopinaren aurkako prebentzio, trebakuntza eta ikerketa arloko programetan kolaboratzea.
- e) Dopinaren aurkako eremuan aurreikusitako dokumentuak sinatzea.
- f) Animalien Erregistroan inskribatu dituzten animalietako edozeini aplikatu zaien edo animalia horiek hartu duten guztiaren erantzuleak izatea. Horretarako, egiaztatuko dute animalia horiei ez zaiela inolako substantzia edo metodo debekaturik sartu edo aplikatu.

2.- Hauek dira abere-probetan parte hartzekoak diren animalien titularren erantzukizunak:

- a) Herri kiroletako federazioek behar bezala baimendutako lehiaketetan soilik parte hartzea, eta ez parte hartzea baimenduta ez daudenetan.
- b) Abere-probetan parte hartzeko nahitaezkoa den federazio-lizentzia edota derrigorrezko beste dokumentu edo baimenak lortzea.

- c) Araudi honetan aurreikusitako Animalien Erregistroan inskribatzea abere-probetan erabili nahi dituzten animaliak, agiri honetan adierazitako epeen barruan.
- d) Animalien titularren inguruan balizko edozein aldaketa egonez gero, berehala ematea horren berri araudi honetan aurreikusitako Animalien Erregistroari.
- e) Animalien Erregistroan behar bezala inskribatuta dauden animaliak baino ez inskribatzea abere-proben lehiaketa edo jardueretan.
- f) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan animalien titular gisa agertzen ez diren pertsona edo erakundeek animalien erantzule edo arduradun gisa jardungo dutela saihestea eta ekiditea, kirol-praktikari dagokionez.

12. artikulua. Probalarien erantzukizunak, dopinari dagokionez

1.- Hauek dira probalarien erantzukizunak, dopinari dagokionez:

- a) Dopinaren aurkako eremuan aplikagarriak diren xedapenak ezagutzea.
- b) Lankidetzan aritzea dopin-kontrolen prozesuetan, bai eta eskatzen zaien informazio guztia ematea ere.
- c) Dopinaren aurkako edozein arau hautsi dela jakinez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta eskumena duten erakundeen aurrean salatzea egoera hori.
- d) Dopinaren aurkako prebentzio, trebakuntza eta ikerketa arloko programetan kolaboratzea.
- e) Dopinaren aurkako eremuan aurreikusitako dokumentuak sinatzea.
- f) Animaliek hartzen edo erabiltzen duten guztiaren erantzuleak izatea, animaliak probalarien esanetara geratzen diren denbora-tartean, abere-probetan parte hartzerakoan.

2.- Hauek dira abere-probetan parte hartzen duten probalarien erantzukizunak:

- a) Herri kiroletako federazioek behar bezala baimendutako lehiaketetan soilik parte hartzea, eta ez parte hartzea baimenduta ez daudenetan.
- b) Abere-probetan parte hartzeko nahitaezkoa den federazio-lizentzia edota derrigorrezko beste dokumentu edo baimenak lortzea.

- c) Animalien Erregistroan inskribatuta ez dauden animalien probalari gisa ez parte hartzea abere-probetan.
- d) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan animalien titular gisa agertzen ez diren pertsona edo erakundeek animalien erantzule edo arduradun gisa jardungo dutela saihestea eta ekiditea, kirol-praktikari dagokionez.

13. artikulua. Abere-proben antolatzaileen erantzukizunak, dopinari dagokionez

1.- Hauek dira abere-proben antolatzaileen erantzukizunak, dopinari dagokionez:

- a) Euren probetan dopinaren aurka hartuko diren neurri eta arau guztiak indarrean dagoen araudiarekin bat etorriko direla egiaztatzea.
- b) Dopinaren aurkako arauak hautsi direla jakinez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren aurrean salatzea egoera hori.
- c) Dopinaren aurkako trebakuntza, informazio eta ikerketa arloko programetan kolaboratzea.
- d) Dopin-kontrolaren arloan independenteak diren behatzaileei baimena ematea euren ekitaldietan parte hartzeko.
- e) Dopin-kontrolen prozesuetan lor ditzaketen datuen konfidentzialtasuna gordetzea.
- f) Dopin-kontrolak egiteko gune egoki bat prestatzea, animaliei egokitua.
- g) Dopin-arauak hausteagatik zigorren bat betetzen ari direnei ez uztea han egoten edo hara sartzen.

2.- Hauek dira abere-proben antolatzaileen erantzukizunak:

- a) Jarduerak edo probak egiteko nahitaezkoak diren baimenak lortzea, eta ez antolatzea araudi honen arabera behar bezala baimenduta ez dagoen ekitaldirik.
- b) Abere-probak antolatzeko nahitaezkoa den federazio-lizentzia edota derrigorrezko beste dokumentu edo baimenak lortzea.
- c) Ekitaldian parte hartuko duten pertsona guztiek indarrean dagoen federazio-lizentzia dutela egiaztatzea.
- d) Ekitaldi batean izena eman duten edo bertan parte hartuko duten animalia guztiak Animalien Erregistroan behar bezala inskribatuta daudela egiaztatzea.

- e) Kirol federazioetako epaileak bertan izatea, beraiek antolatutako probetan joko-arauak gainbegiratu eta kontrolatu ditzaten. Era berean, epaileen lana erraztea.
- f) Agintarien presentzia baimentzea eta ekitaldira joan diren agintariekin kolaboratzea, dagozkien eskumenak edo eskuduntzak bete ditzaten.
- g) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan animalien titular gisa agertzen ez diren pertsona edo erakundeek animalien erantzule edo arduradun gisa jardungo dutela saihestea eta ekiditea, kirol-praktikari dagokionez.

IV. TITULUA DOPINAREN AURKAKO PREBENTZIOA ETA BORROKA

I. KAPITULUA GAI OROKORRAK

14. artikulua. Animaliei dopin-kontrolak egitea

1.- Abere-probetan parte hartzen duten animaliei Dopinaren Aurkako Organoak adierazitako dopin-kontrolak eta gainerako probak egin ahal izango zaizkie, lehiaketan bertan zein lehiaketatik kanpora.

2.- Betebehar hori berdin-berdin aplikatu behar zaie, zigorra jaso ostean, hautaezintasun-aldian dauden animaliei ere; eta, probaren batean parte hartzera bueltatuko balira, aldez aurretik egingo litzaieke hori.

3.- Dopin-kontrolen menpe geratzearen obligazioa beste animalia batzuei ere heldu dakieke; zehazki, une jakin batean behar bezala erroldatuta egon ez arren, arrazoizko presuntzio baten arabera abere-probetan parte hartuko dutela uste den animaliei.

4.- Titularrek eta probalariek kolaboraziorik handiena eskaini beharko dute, eskumena duten agintariek dopin-kontrolaren arloko ekintzak egin ditzaten, bai ekitaldietan eta bai ekitaldietatik kanpora. Era berean, abere-proben antolatzaileek beharrezko lankidetzak eskaini beharko diete eskumena duten agintariei, azken horiek dopin-kontrolaren arloko ekintzak egin ditzaten.

5.- Federazio-lizentzia baten titularrak araudi honetan aurreikusitako organoen jurisdikzioaren menpe geratuko dira, federazio-lizentzia eskatu zutenean edo federazio-lizentziaren titularrak zirenean izandako gertakariengatik, eta, baita ere, dopinagatik diziplina-prozedura interesdunak federazio-lizentziarik ez duen unean abiarazi edo jarraitu bada.

15. artikulua. Dopin-kontrolak

1.- Dopinaren Aurkako Organoak agindutako dopin-kontrolak (lehiaketan zein lehiaketatik kanpora) arlo berean eskumenak izan ditzaketen edozein eragile publiko edo pribaturekin lankidetzan egingo dira, eta eragile horiek edozein lurralde-esparrutakoak izan daitezke.

2.- Era berean, dopin-kontroltzat hartuko dira eskumena duten organo eta agintariak garatutako ekintza guztiak, dopinaren aurkako araudia bete ez dela eta indarrean dauden xedapenetan aurreikusitako arauak hautsi direla egiaztatzeko asmoz garatutakoak.

16. artikulua. Laginen titulartasuna

Araudi honetan aurreikusitako dopin-kontrolatan animaliei hartzen zaizkien laginen jabea Kirol Federazioa izango da. Laginok dopinaren aurkako borrokarekin eta animalien babesarekin lotutako helburuetarako erabili ahal izango dira.

17. artikulua. Dopinaren inguruko frogak eta arau-hausteengatiko erruduntasuna

1.- Dopinaren arloko zehapen-prozeduran, diziplina-organoak eta eragindako pertsonak zuzenbidean onargarriak diren frogabide guztiak erabili ahal izango dituzte. Froga horiek modu bateratuan baloratu beharko dira, kritika zintzoaren arauen arabera.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, froga-arau berezi hauek ezinbestean aplikatu beharrekoak izango dira:

a) Dopin-kontrol jakin bateko analisi baten emaitza kontrakoa bada, emaitza hori egozketa-frogatzat edo froga nahikotzat joko da, eta ulertuko da araudi honetan tipifikatutako arau-hausteren bat gertatu dela, substantzia edo metodo debekatu baten erabilerari, kontsumoari edo presentzia soilari dagokionez. Ondorio horietarako, ondorengo edozein egoera gertatzea froga nahikotzat joko da:

- animalia A laginaren analisisian substantzia debekaturen bat edo substantzia horren metabolito zein markatzailearen bat antzematea, baldin eta animalia B laginaren analisiari uko egiten badiu eta analisisia egiten ez bada.
- B laginaren analisiak animalia A laginaren analisisian antzemandako substantzia debekatuaren edo substantzia horren metabolito zein markatzaileen presentzia berrestea.

- animalia baten B lagina bi potetan banatzea, eta bigarrenaren analisiak lehen potean antzemandako substantzia debekatuaren edo substantzia horren metabolito zein markatzaileen presentzia berrestea.

b) Kontrolei uko edo aurka eginez gero, gaitutako pertsonak sinatu duten eta ukoa egiaztatzen duen dokumentuak frogabalia izango du. Edonola ere, interesdunek frogak eman edo aurkeztu ahal izango dituzte euren eskubide edo interesen defentsan, baliozko justifikazioaren bat zegoela egiaztatzeko asmoz.

c) Ulertzen da dopinaren kontrolerako laborategi egiaztatuek aplikagarria den araudiaren arabera egiten dituztela laginketako analisiak eta araudi beraren arabera aplikatzen dituztela zaintza-prozedurak. Salbuespena izango da kontrako frogaren batek egiaztatzea arau horiek bete ez izana izan daitekeela analisiaren kontrako emaitzaren zentzuzko arrazoia. Prozedura batean sartuta dagoenak frogatu dezake laborategiak aplikagarria den araudia hautsi duela eta, zentzuz, agian egoera horrek eragin duela analisiaren kontrako emaitza, eta, ondorioz, horrexegatik abiarazi dela prozedura. Kasu horretan, eskumena duen organoak frogatu beharko du aplikagarria den araudia hautsi izanak ez zuela analisiaren kontrako emaitza sorrarazi.

d) Kontrako frogarik ezean, onartutzat jotzen dira dopinaren aurkako kontrolean aritzen diren eta behar bezala baimenduta dauden laborategiek aplikatzen dituzten metodo analitikoaren balio zientifikoa eta erabakimen-mugak.

e) Dopina kontrolatzeko prozeduretan aplikagarria den araudia bat haustea ez du emaitzaren baliozotasuna baldintzatuko, ez bada analisiaren kontrako emaitzaren edo beste arau-hausteren baten kausa zuzena. Prozedura batean sartuta dagoenak frogatzen badu aplikagarria den araudia hautsi izana izan daitekeela analisiaren kontrako emaitzaren edo arau-haustearen kausa, eskumena duen organoak frogatu beharko du hori ez dela izan analisiaren kontrako emaitzaren kausa.

3.- Behar bezala egiaztatutako dopin-kontrolerako agenteek formalizatutako formularioak, non, dagozkion legezko betebeharrak zainduz, agenteek dopin-kontrolerako prozesuari buruzko gertakari egiaztatuak jasoko dituzten, aipatutako gertakariaren frogabalia izango dira, ez bada kontrakoa egiaztatzen. Eta, edonola ere, salatuek euren eskubide edo interesen defentsan eman edo aurkeztu ditzaketen ahalik eta frogabalia-elementu gehienak aurkeztu beharko dituzte salatutako gertakariaren eta frogaren inguruan.

4.- Animalia baten laginean substantzia edo metodo dopatzaile debekatuaren bat antzeman edo aurkituz gero, araudi honetan aurreikusitako Animalien Erregistroan animalia horren titular gisa agertzen dena erruduntzat joko da.

5.- Horrez gain, animalia baten laginean substantzia edo metodo dopatzaile debekatuaren bat antzeman edo aurkituz gero, modu osagarrian, diziplina-organok adierazi ahal izango du dopin-arauak hautsi izanaren errua araudi honen aplikazio-eremuaren menpe dauden eta federazio-lizentzia duten beste pertsona batena edo batzuen ere izan daitekeela.

II. KAPITULUA

SUBSTANTZIA ETA METODO DOPATZAILE DEBEKATUEN ZERRENDA

18. artikulua. Substantzia eta metodo dopatzaile debekatuen zerrenda

Araudi honetan aurreikusitakoaren esparruan, aplikagarria izango da Nazioarteko Zaldiketa Federazioak (FEI) une bakoitzean finkatuta, argitaratuta eta indarrean daukan substantzia eta metodo dopatzaile debekatuen zerrenda. Aipatutako zerrendaren berri emateko asmoz, kirol federazioak berau argitaratuko du, eta, aldaketaren bat dagoenean, eguneratu egingo du.

III. KAPITULUA

DOPIN-KONTROLAK EGITEKO ARDURA DUTEN PERTSONAK

19. artikulua. Dopin-kontrolerako lantaldea

1.- Abere-probetan parte hartzen duten animaliei lehiaketan zein lehiaketatik kanpora egindako dopin-kontrolak Dopinaren Aurkako Organoak izendatutako dopin-kontrolerako lantaldeak egingo ditu.

2.- Dopin-kontrolak egiteko gaituta dagoen albaitari batek osatuko du dopinaren kontrako misio bakoitzean parte hartuko duen dopin-kontrolerako lantaldea. Gaitutako albaitaria izango da dopin-kontrola egiteko arduraduna edo erantzulea, araudi honetan jasotakoaren ondorioetarako.

20. artikulua. Gaitutako albaitariak

1.- Dopinaren Aurkako Organoari dagokio abere-probetan parte hartzen duten animalien gaineko dopin-kontrolerako agente gisa parte har dezaketen albaitariak gaitzea. Aipatutako gaikuntzarako eta berrikuntzarako, Dopinaren Aurkako Organoak dagozkion ikastaro edo trebakuntzak antolatuko ditu.

2.- Abere-probetan parte hartzen dutenekin harreman pertsonal, profesional edo komertziala dutenek ezin izango dute jardun araudi honetan aurreikusitako dopin-kontrolerako gaitutako albaitari gisa.

21. artikulua. Dopin-kontrolerako lantaldeko beste kide batzuk

Gaitutako albaitariari lagunduko dioten beste pertsona batzuk ere izan daitezke dopin-kontrolerako lantaldeko kide. Prozesuaren arduraduna den gaitutako albaitariari lagunduko dioten pertsona horiek animalien gaineko dopin-kontrolaren araudi honi buruzko ezagutzak izan beharko dituzte. Era berean, dopin-kontrolerako lantaldeak eskoltak izan ditzake, eta eskolta horiek dopin-kontrolaren arduradunaren edo erantzulearen agindupean arituko dira.

IV. KAPITULUA DOPINAREN AURKAKO LABORATEGIAK

22. artikulua. Laborategiak

Abere-probetan parte hartzen duten animaliei hartutako lagin fisiologikoak – lehiaketan zein lehiaketatik kanpora hartutakoak– Dopinaren Aurkako Organoak zehazten duen dopin-kontrolerako laborategi batean aztertuko dira. Laborategiak Association of Official Racing Chemists (AORC) elkartearen akreditazioa izan beharko du, animaliei kontrolak egin ahal izateko.

V. KAPITULUA ALBAITARITZA ARLOKO ERABILERA TERAPEUTIKOKO BAIMENAK

23. artikulua. Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenak

1.- Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenaren (AETB) bitartez, indarrean dagoen erreferentziako zerrendan sartuta dauden debekatutako substantziak edo metodoak erabili daitezke edo aplikatu dakieke animaliei; izan ere, beste edozein kasutan, substantzia edo metodo horiek erabiltzea arau-haustea izango litzateke. Baimena araudi honetan adierazitako baldintza eta prozeduren arabera ematen da.

2.- Abere-probetan parte hartzekoa den eta Animalien Erregistroan inskribatuta dagoen animalia batek behar bezala dokumentatutako eta egiaztatutako arazoren bat duenean, eta arazo horren ondorioz debekatutako substantzia edo metodoren bat erabili behar denean, animalia horren titularrak albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) aurkeztu eta lortu beharko du.

3.- Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) modu hauetan eskatu beharko du animalia horren titularrak:

- a) oro har, substantzia edo metodo debekaturen bat duen edozein produktu edo medikamentutan oinarritutako tratamenduak edo aplikazioak egin baino lehen.
- b) substantzia edo metodo debekaturen bat duen edozein produktu edo medikamentutan oinarritutako tratamendu edo aplikazioen larrialdi kasuetan, berehala aurkeztu beharko da eskaera, eta, edonola ere, aipatutako erabileraren osteko hurrengo bi egunen barruan.

4.- Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) eman bada, bertan agertu beharko da animaliak substantzia edo metodo debekaturen bat duen edozein produktu edo medikamentutan oinarritutako tratamendua edo aplikazioa jaso duen eguna edo egunak, eta berariaz aipatu beharko da noiz amaitu zen produktu edo medikamentu horrekin egindako tratamendua edo aplikazioa.

5.- Animalia batek ezin izango du abere-probetan parte hartu:

- a) Substantzia edo metodo debekaturen bat duen edozein produktu edo medikamentutan oinarritutako larrialdietako tratamenduaren edo aplikazioaren artean dagoen denbora-tartean, albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) ez bada AETBEBren aurrean aurkeztu.
- b) Tratamendua amaitu ostean, AETBEBk ezarritako epea igaro arte. AETBEBk ezarritako epea bat etorriko da erabili den medikamentuaren ezabatze-aldiarekin (edo haragian izandako itxaronaldiarekin), Medikamentuaren Agentziak onartutako fitxa teknikoan adierazita dagoen moduan. Animalari egindako albaitaritza arloko tratamendua amaitu eta abere-proban parte hartuko duen unera arteko epea berariaz egongo da adierazita AETBn.

24. artikulua. Albaitaritza arloko Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordea (AETBEB)

1.- AETBEB albaitari batek edo hiruk osatuko dute, denak ere esperientziadunak animalien inguruko asistentzian eta tratamenduan. Dopinaren Aurkako Organoak erabakiko du AETBEB kide bakarrekoa edo anitzekoa izango den.

2.- AETBEBko kideak Dopinaren Aurkako Organoak izendatuko ditu, lau urteko eperako, eta beste lau urterako berritzeko aukerarekin. Aurreneko luzapen hori igarota, AETBEBko kide horien ordeztu araudi honetan eskatutako baldintza eta betebeharrak dituzten beste batzuk jarriko dira.

3.- AETBEB kide anitzez osatuko balitz, Dopinaren Aurkako Organoak batzordeburua eta idazkaria izendatuko lituzke, izendatutako kideen artean aukeratuta. Postua hutsik balego, kidea bertan ez balego, gaixorik balego edo legezko beste arrazoiren bat izango balu, antzinasun handiena duen AETBEBko kidea arituko litzateke batzordeburuaren ordeztu, eta, bik edo gehiagok antzinasun bera balute, bietatik zaharrena arituko litzateke. Kasu berberetan, idazkariaren ordeztu antzinasun txikiena duen AETBEBko kidea arituko litzateke, eta, bik edo gehiagok antzinasun bera balute, bietatik gazteena arituko litzateke. Erabakia bozkatu behar denean eta kideen gehiengo soilik ez dagoenean, batzordeburuak kalitate-botoa izango du.

4.- AETBEBko kideek arrazoi hauengatik utziko diote kide izateari:

- a) Uko egiteagatik.
- b) Izendatuak izateko epea iraungi delako.
- c) Euren karguei dagozkien betebeharrak behar den moduan betetzeari utzi diotelako.

- d) Konfidentzialtasuna bete ez dutelako.
- e) Animaliekin erlazionatutako administrazio-zigor bat edo dopin arloko isun bat ezarri zaielako.
- f) Osasun publikoaren aurkako edo animalien babesarekin erlazionatutako delituren bat egin izanaren ondorioz jasotako epai irmoagatik.

c), d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan, kide izateari utzi baino lehen, egoera hori justifikatzen duten gertakariei buruzko aldebiko espedientea aurkeztu beharko da.

5.- AETBEBko kideek konfidentzialtasuna eta sekretua mantendu beharko dituzte beren karguagatik eskuratzen dituzten datu, txosten eta aurrekariei buruz, eta egiten dituzten bilerak ere isilpekoak izango dira, datu pertsonalak aipatzen direnean. Beraz, konfidentzialtasunari buruzko konpromisoak sinatuko dituzte.

25. artikulua. Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) emateko irizpideak

Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) eman ahal izango da, AETBEBren arabera ondorengo baldintza guztiak betetzen direnean, eta soilik kasu horretan:

- a. Substantzia edo metodo debekatu hori beharrezkoa izatea animaliaaren arazo akutu edo kronikoren bat artatzeko; hau da: substantzia edo metodo debekatu hori emango ez balitzaio, animaliaaren integritatea edo ongizatea larri kaltetuko balitz.
- b. Oso nekez gertatuko balitz substantzia edo metodo debekatu horren albaitaritza arloko erabilerak animaliaaren errendimendua hobetzea, patologia akutu edo kronikoaren tratamenduaren ostean animaliaaren integritatea edo ongizatea leheneratzeari dagokion hobekuntzatik aparte.
- c. Ez egotea substantzia edo metodo debekatua ordeztuko duen albaitaritza arloko alternatiba baimendurik.
- d. Substantzia edo metodo debekatua erabili beharra ez izatea aurretiaz beste substantzia edo metodo bat erabili izanaren ondorio partzial edo osoa, aurretiazko substantzia edo metodo hura debekatuta baldin bazegoen erabili zenean.

26. artikulua. Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) eskatzea, tramitatzea eta jakinaraztea

1.- Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenak (AETB) emateko prozeduren eskaerak, tramitazioak eta ebazpenak arau hauen arabera izango dira:

- a) Eskatzaileak Dopinaren Aurkako Organoak ezarritako formularioa bete beharko du, eta dagokion dokumentazioa eta informazioa erantsi beharko du albaitaritza-gaiei buruz.
- b) AETBEBk eskabidea jasotzean, zuzentzeko moduko akatsak antzemango balira, eskatzaileari eskatuko litzaioke dagokiona aurkezteko bost egun balioduneko epean. Horretarako emandako epean eskatzaileak ez balu eskatutakoa aurkeztuko, eskaera-espeditentea artxibatu egingo litzateke eta halaxe jakinaraziko litzaioke interesdunari.
- c) Eskabidea jaso eta aztertuta, AETBEBk dagokion erabakia hartuko du albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenari (AETB) buruz, eta horren arabera emango edo ukatuko da baimena.

2.- Administrazio-prozedura erkidearen legedian ezarritakoa betez, AETBEBk idatziz eman beharko dio erabakiaren berri animaliaaren titularrari, 21 egun balioduneko epean, albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimen osoa jaso den egunaren biharamunetik aurrera. Epe hori 30 egun baliodunekoa izango da, ezohiko gertakariak direla-eta AETBEBk ezin izan duenean erabakiaren berri eman.

3.- AETBEBk animaliaaren titularrari jakinarazten dionean albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) eman diola, jakinarazpenean bertan jaso beharko da substantzia edo metodo debekatuaren posologia, maiztasuna, emateko modua eta iraupena, bai eta albaitaritza arloko gorabeherak eta baimenaren inguruan ezarritako edozein baldintza ere. Era berean, araudi honen 23.5 b) artikulua aipatzen duen informazioa ere jaso beharko da.

4.- AETBEBk animaliaaren titularrari jakinarazten dionean ez diola albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenik (AETB) eman, jakinarazpenean bertan azaldu beharko da zergatik ukatu zaion baimena. AETBEBren erabaki horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

5.- Artikulu honen lehenengo atalean ezarritako epeak igaro ostean, albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimena (AETB) eman edo aitortzeko asmoz aurkeztutako eskabideen inguruan ebazpenik ez egoteak ondorio negatiboak izango ditu. Ondorioz, AETBEBk ez badu akordiorik hartzen edo ez badu ebazpenik ematen albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenaren (AETB) eskaera baten inguruan, horren ondorioak eskaera gaitzestearen edo baimena ez ematearen berberak izango dira.

27. artikulua. Albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenen (AETB) erregistroa

1.- Dopinaren Aurkako Organoak albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenen (AETB) erregistroa izango du, eta bertan jasoko dira aurkeztutako eskaerak, berariaz adierazita eman edo ukatu diren.

2.- Araudi honetan erregulatutako dopinaren aurkako sistemaren esparruan eta Dopinaren Aurkako Organoak eskatuta egiten diren dopin-kontrolen eta dopinaren inguruko ekintzen esparruan, AETBEBk eman dituen eta indarrean dauden albaitaritza arloko erabilera terapeutikoko baimenak (AETB) baino ez dira izango baliagarriak eta eraginkorrak.

VI. KAPITULUA DOPIN-KONTROLAREN PROZEDURA

1. ATALA ANIMALIEN HAUTAKETA

28. artikulua. Dopin-kontrol motak, animalien hautaketaren arabera

Kontrolak mota hauetakoak izan daitezke, kontrolatuak izango diren animaliak hautatzeko moduaren arabera:

- a) Zuzenduak. Animaliak izendapen bidez hautatzen dira, araudi honetan jasotako irizpideen arabera.
- b) Ausazko hautaketa bidez. Ausazko hautaketa erabat ausazkoa izan daiteke, zozketa hutsez egin bada; edo haztatua, animaliak alde zuzenetik zehaztutako irizpideen arabera hautatu direnean.

29. artikulua. Animaliak hautatzeko irizpideak

Hauek izango dira kontrol zuzenduen xede izan behar duten animaliak zehazteko irizpideak:

- a) Lehendik egin diren dopin-kontrolen emaitzek dopinaren aurkako arauen kontrakoak diren jardunen zantzuak eman izana, edozein parametro biologiko anomalo barne.
- b) Animaliaaren kirol-errendimenduak bat-batean nabarmen hobera egin izana.
- c) Animaliei buruzko informazioa aurkezterakoan, modu irregular edo zalantzazkoan aritu izana, eta horrek dopin-kontrola egitea zailtzea, oztopatzea edo galaraztea.

- d) Kirol-lehiaketa bat ustekabeen edo justifikaziorik gabe bertan behera utzi izana, edo bertan ez izatea edo ez agertzea, baldin eta parte hartzekoa bazen.
- e) Dopin-jardunekin erlazionatutako aurrekariak dituzten hirugarrenekin harreman pertsonal edo profesionalak izatea edo garai batean eduki izana.
- f) Finantza-pizgarriak jaso izana errendimendua hobetzeko; esate baterako, sariak dirutan edo babeserako aukerak.
- g) Hirugarrenengandik heldutako edo inteligentzia nahiz ikerketa zerbitzuetatik lortutako informazio fidagarria jaso izana, baldin eta informazio horrek ohartarazten badu jarrera edo jardun debekatuak egin daitezkeela.
- h) Lehiaketatik kanpoko kontroletan, aurreko irizpideez gain, kontuan izango da animaliak proba esanguratsuetan parte hartzekoak direla.
- i) Animaliak jarrera edo portaera ezohikoa edo susmagarria izatea, edo substantzia nahiz metodo debekatuen erabilerarekin bat etor daitekeen jarrera izatea.

30. artikulua. Hautaketari buruzko jakinarazpena

Lehiaketetako dopin-kontrolak igaro beharko dituzten animaliak zeintzuk izango diren ez zaie jakinaraziko laginak batuko dituen lantaldetik kanpoko inori, proba edo lehiaketa amaitu eta kontrol-prozesuei ekin baino lehen. Dopin-kontroletarako guztiz ezinbestekoak diren kasu zehatzen gorabeherengatik baino ez zaie jakinaraziko ekitaldian dauden pertsonen zeintzuk izan diren hautatutako animaliak.

2. ATALA LAGINAK BATZEKO GUNEA

31. artikulua. Dopin-kontrolerako gunea

Dopinaren Aurkako Organoak abere-proben antolatzaileei eskatuko die proba horietarako erabiltzen diren instalazio eta esparruetan sarrera mugatuko gunea bat egotea, dopin-kontrolak egiteko. Halaber, eskakizun hori betetzen dela zainduko du. Dopin-kontrolerako gunea aukera emango du dopinaren aurkako prozedurarekin erlazionatutako jarduerak egiteko, eta bermatu egingo ditu dopin-kontrolerako lantaldearen lan egokia eta animalien ongizatea nahiz integritatea.

3. ATALA

KONTROLA EGIN BAINO LEHENAGOKO BETEKIZUNAK: JAKINARAZPENEA

32. artikulua. Jakinarazpenaren izapideak

1.- Araudi honetan ezarritako irizpideen arabera, aurretiazko abisurik eman gabe jakinaraziko da animalia bat dopin-kontrola egiteko hautatua izan dela, araudi honetan aurreikusitako ezohiko kasuetan izan ezik.

2.- Dopin-kontrolako agenteak edo berak izendatzen duenak pertsonalki jakinaraziko du hautatutako animalia batek kontrola igaro beharko duela nahitaez; zehazki, honako honi jakinaraziko dio:

a) Lehiaketa barruko dopin-kontrolatan:

- Animaliaaren titularrari, ekitaldia egingo den tokian balego. Animaliaaren titularra pertsona juridiko bat balitz, erakunde horretatik ekitaldiaren tokian dagoen ordezkariari.
- Animaliaaren titularra ez balego ekitaldia egingo den tokian, dopin-kontrola igaro behar duen animaliarekin batera ekitaldian aritu den probalariari.

b) Lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolatan: animaliaaren titularrari, bertan balego; edo, bertan ez balego, dopin-kontrola egingo den tokian animalia zaintzen edo kontrolatzen ari den pertsonari.

3.- Jakinarazpen Formularioa betez formalizatuko da aipatutako jakinarazpena.

4.- Lehiaketatik kanpoko kontrolatan, animaliaaren titularrari (edo animaliaaren titularra den erakundearen ordezkari bati, titularra pertsona juridikoa denean) zuzenean jakinaraziko zaio.

5.- Lagina hartu baino lehen, dopin-kontrolako agenteak dopin-kontrolak egiteko gaitasuna ematen dion egiaztagiria aurkeztu behar du. Hain zuzen ere, egiaztagiri hori Dopinaren Aurkako Organoak emandakoa izango da.

33. artikulua. Jakinarazpena egitea

1.- Jakinarazpena egiteko ardura duen pertsona jakinarazpena jasoko duenari zuzenduko zaio, eta azken hori identifikatu egingo da, Nortasun Agiri Nazionala, Pasaportearen edo zenbakitutako antzeko beste agiri ofizialen bat erakutsita, non izen-abizenak, duela gutxiko argazki bat, eta agiriaren zenbakia agertuko baitira. Abere-probak egiten direnean, federazio-lizentziaren bidezko identifikazioa onartu ahal izango da, bertan datu pertsonalak agertzen badira.

2.- Lehiaketaren gorabeherak direla-eta ezinezkoa bada jakinarazpena jaso behar duen pertsona erabat identifikatzea, pertsona horrek nor den adieraziko du, datu horiek geroago berretsi ahal izateko.

3.- Lehiaketaren gorabeherak ez badute justifikatzen jakinarazpena jaso behar duen pertsonak argazkidun identifikazio ofiziala ez aurkeztea, edo identifikatzeari uko egiten badiu, jakinarazpena egiten duenak jasota utzi beharko du egoera horren berri, eta dopin-kontrolako agenteak Dopinaren Aurkako Organoari jakinarazi beharko dio, dagozkion ondorioetarako.

34. artikulua. Jakinarazpena jasoko duen pertsonari emango zaion informazioa

Identitatea kontrastatu ostean, jakinarazpena egingo duen pertsonak gai hauen berri emango dio jakinarazpena jasoko duen pertsonari:

- a) Animalia jakin bat hautatu dela dopin-kontrola egiteko.
- b) Kontrola egiteko ardura duen erakundearen identifikazioa.
- c) Jaso beharreko lagin mota.
- d) Laginak jasotzeko prozesuan, animaliarekin batera egongo den eta behar den bezala dokumentatuta egongo den pertsona bat izendatzeko eskubidea.
- e) Laginak jasotzeari buruzko informazio osagarri koherente eta egokia eskatzeko eskubidea.
- f) Animalia kontrola egitearen obligazioa, eta horri aurka edo uko egiteak dakartzan ondorioak, araudi honetan ezarritako bidezko arrazoirik ez dagoenean.
- g) Animaliak une oro laginak batzeko lantaldearen zaintzapean egotearen obligazioa, jakinarazpena egiten den unetik hasi eta laginak batzeko prozesua amaitu arte.
- h) Edozein unetan laginak batzeko lantaldeko kideen aurrean identifikatzearen obligazioa, hala eskatzen bazaio. Horretarako, identitatea egiaztatze balio duen argazkidun agiri ofiziala erakutsi beharko du.
- i) Animalia dopin-kontrolerako gunean edo laginak batzeko adierazitako tokian aurkeztearen obligazioa, jakinarazpenean adierazitako moduan.
- j) Dopin-kontrolerako gunera beranduago joateko eskaera egiteko eskubidea.

- k) 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako moduan, bere datuak tratatzeari eta uzteari buruzko informazioa eta dituen eskubideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

35. artikulua. Kontrolera beranduago joateko eskaera

- 1.- Jakinarazpena egin ostean, jakinarazpena jaso duen pertsonak Dopin-kontrolerako Gunera edo laginak batzeko zehaztutako tokira beranduago joateko eskaera egiteko eskubidea izango du, modu justifikatuan betiere.
- 2.- Dopin-kontrolerako agenteak eskaera onartu ahal izango du, eta animalia Dopin-kontrolerako Gunean aurkezteko epe zehatza adieraziko du. Edonola ere, jarriko den epea proportzionatua izango da atzerapena justifikatzen duen arrazoiarekiko, baldin eta, denbora-tarte horretan, animalia dopin-kontrolerako agente baten edo eskolta baten zaintzapean egon badaiteke.
- 3.- Atzerapen-eskaera baztertu egingo da, animalia ezin bada une oro egon dopin-kontrolerako agente baten edo eskolta baten zaintzapean.

36. artikulua. Jakinarazpena jasotzeari uko egitea

- 1.- Jakinarazpena jaso behar duen pertsonak uko egingo balio jakinarazpena jasotzeari, jakinarazpena egiten duenak jasota utziko du egoera horren berri, eta lekuko presentzial bati (ahal dela, probako epaileari edo dopin-kontrolerako lantaldeko beste kideren bati) eskatuko dio gertatutakoa egiaztatzeko.
- 2.- Dopin-kontrolerako agenteak Dopinaren Aurkako Organoari azalduko dio dopin-kontrola egiteko jakinarazpena jaso behar zuen pertsonak uko egin diola jakinarazpena jasotzeari.

37. artikulua. Animalia zainza

- 1.- Kontrolari buruzko jakinarazpena egin ostean, animalia eskoltaren edo dopin-kontrolerako agentearen zaintzapean geratuko da, kontrolerako gunera joan arte.
- 2.- Animalia zaintzapean egon den bitartean, harekin batera egon den eskoltak edo laginak batzeko lantaldeko beste edozein kidek edozein irregulartasun ikusi badu (berezi, dopin-kontrolaren emaitzak arriskuan jar ditzakeen edozein irregulartasun), egoera horren berri eman beharko dio dopin-kontrolerako agenteari.
- 3.- Jakinarazpena jaso duen pertsonak ez baditu betetzen atal honetan adierazitakoak edo dopin-kontrolerako agenteak nahiz eskoltak emandako argibideak, egoera hori jasota geratuko da kontrolerako formularioa osatuko duen txosten batean, eta, horren ondorioz, zehapen-espedita ireki ahal izango da.

38. artikulua. Atzerapena, ukoa eta animalia ezin lokalizatzea

1.- Jakinarazpena jaso duen pertsonak, behar den moduan egindako jakinarazpenaren ostean, ez badu hautatutako animalia aurkezten Dopin-kontrolerako Gunean jakinarazpenean adierazitako epean, dopin-kontrolerako agenteak hogeita hamar minutu gehiago itxarongo du, eta, ondoren, amaitutzat emango du kontrola eta horren berri emango dio Dopinaren Aurkako Organoari.

2.- Jakinarazpena jaso duen pertsonak, behar den moduan egindako jakinarazpenaren ostean, justifikaziorik gabe saihesten badu, uko egingo badio edo ez badu betetzen animalia dopin-kontrolera eramatearen obligazioa, dopin-kontrolerako agenteak amaitutzat emango du kontrola eta horren berri emango dio Dopinaren Aurkako Organoari.

3.- Dopin-kontrola igaroko duen animaliak dopin-kontrolerako agentearekin batera egon beharko du, laginak batzeko prozesua amaitu arte.

4. ATALA LAGINAK BATZEKO BETEKIZUNAK ETA PROZEDURA

39. artikulua. Gernu eta odol laginak batzea

Gernu eta odol laginak batu, atera, ontziratatu, manipulatu, biltegitatu, garraiatu eta zaintzeko prozesua honako arau hauen arabera egingo da:

- a)** Animalia baten lagin fisiologikoak batzeko prozesuan honako hauek egongo dira soilik: laginak batzeko lantaldeko kideak eta animaliarekin batera dagoen pertsona.
- b)** Laginak batzeko prozesuak irauten duen bitartean, dopin-kontrolerako aktaren formularioa bete da, eta kopiak egingo dira honako hauentzat:
 - Laborategia, baina ale horretan ez da jasoko animalari eta berarekin dagoen pertsonari buruzko daturik.
 - Dopinaren Aurkako Organoa.
 - Animaliaaren titularra.
- c)** Prozesuak irauten duen bitartean, animaliei ez zaie emango dopin-kontrolaren arduradunak baimendu ez duen inolako produkturik.
- d)** Animaliak kontrolerako gunean egon beharko du, laginak batzeko prozesua amaitu arte.

- e) Laginak batzeko materialak bermatu egin beharko ditu jasotako laginen segurtasuna eta integritatea, identifikazio bakarreko sistema baten bidez.
- f) Prozesuari ekiten zaionean, animaliarekin batera dagoen pertsonak laginak batzeko kit bat aukeratu ahal izango du.
- g) Prozesuaren arduraduna edo haren laguntzailea bertan dela, dopin-kontrolako agenteak zehaztutakoa baino txikiagoa ez den gernu edo odol bolumena batu beharko da.
- h) Hasieran aurreikusitako dopin-kontrola gernu-laginei buruzkoa bada eta animalia ez bada gai jariakin horren lagin fisiologikorik emateko (edo emandako laginak ez badu bolumen nahikorik) dopin-kontrolerako gunera heldu eta ordubeteko epean, dopin-kontrolaren arduradunak erabaki ahal izango du, bere irizpideen arabera, kontrola odol-laginekin egin beharko dela.
- i) Lagina benetakoa dela bermatzeko, berau batzeko ardura duenak edo haren laguntzaileak zuzenean manipulatu du animalia.
- j) Lagina atera edo lortu ostean, prozesuaren arduradunak beirazko bi flaskoren artean banatuko du lagin hori. Hain zuzen ere, bi flasko horiek animaliarekin batera dagoen pertsonak aukeratutako kitean egongo dira, eta dopin-kontrolako agenteak erabakitako bolumena sartu beharko da flaskoetako bakoitzean. Gernu-laginen kasuan, gernu apur bat geratu beharko da ontzian. Operazio hori amaitzean, flaskoak hermetikoak direla egiaztatu beharko da.
- k) Ondoren, laginak batzeko arduradunak gernuaren pH-a eta dentsitatea neurtuko ditu, eta, horretarako, lagina batzeko erabili den ontzian utzitako hondar-laginarekin bolumen txiki bat erabiliko du.
- l) Prozesuan animaliarekin batera dagoen pertsonak egiaztatu ahal izango du flaskoetako kode guztiak jasota geratzen direla lagina batzeari buruzko aktan, eta idatzitakoa guztiz bat datorrela kode horiekin.
- m) Prozesuaren arduradunari, zantzuren baten arabera, iruditzen bazaio emandako lagina faltsututa egon daitekeela bete beharreko betekizunei dagokienez, eta ez dela bilketaren xede gisa lortu nahi den benetako lagina, arduradunak beste lagin bat hartu ahal izango dio animaliarri, aurrekoa baztertu gabe. Analisisien osteko prozeduren ondorioetarako, bigarren lagin hori osagarritzat hartuko da, eta ez da bereizitzat joko lehenengo laginarekiko. Ondoren, dagozkion formularioekin batera bidali beharko da laborategira, eta laginak batzeko prozesuaren arduradunak prestatutako txostena ere erantsi beharko da.

- n) Jarraian, animaliarekin batera dagoen pertsonak adierazi eta egiaztatu beharko du, hala badagokio, zein medikazio erabili duen gutxienez kontrola egin baino lehenagoko 10 egunetan, produktu horiek emateko bidea edozein izanda ere. Laginak batzeko ardura duenak adierazpen hori jasoko du batutako laginei buruzko aktan. Animaliarekin batera dagoen pertsonak ez badu adierazpen hori egiten, halaxe utzi beharko du jasota laginak batzeko ardura duenak.
- o) Arduradunak datu guztiak egiaztatuko ditu, kontrolatutako animaliarekin batera dagoen pertsonarekin. Kontrolatutako animaliarekin batera dagoen pertsonak prozesuen zehaztasuna egiaztatuko du, eta, horretarako, akta sinatuko du. Laginak batzeko ardura duenak ere sinatuko du aipatutako akta.
- p) Aldeetakoren bat ez badago ados prozesuarekin, egoera hori dopin-kontrolako aktan adierazi beharko da, oharren atalean, eta adierazpen hori sinatu beharko da.

5. ATALA LAGINAK LABORATEGIRA BIDALTZEA

40. artikulua. Laginak laborategira bidaltzea

Laginak batzeko prozesu orokorra amaituta, dopin-kontrolaren arduradunak lagin horiek zaindu eta laborategira bidaliko ditu, gehienez ere hogeita lau orduko epean, non eta epe horren barruan ez dagoen jaiegunik. Garraioa laginak batzeko ardura duenak egingo du, edo mezularitza arloko pertsona edo enpresaren batek.

6. ATALA ANALISIA

41. artikulua. «A» azpi-laginaren analisisa

1.- «A» azpi-lagina laborategira heldu eta jarraian analizatuko da, baldin eta ez bada ezer gertatzen analisisa bertan behera uzteko.

2.- Hauek izango dira lagina bertan behera uzteko arrazoiak:

- a) Animaliaaren, titularraren edo beraiekin erlazionatutako edozein pertsonaren datuen berri izatea, halaxe agertzen direlako edo laborategira iritsitako edozein dokumentutako sinaduretan agertzen direlako.
- b) Edukiontzi indibiduala irekitzean, «A» flaskoa apurtuta aurkitzea.
- c) «A» flaskoan gernu edo odol lagin nahikorik ez egotea.

- d) Flaskoetako kodeak bat ez etortzea dopin-kontrolako aktetan jasotakoekin.
- e) Lehiaketetako dopin-kontrolako aktetan eta bidalitako laginetan ez egotea koderik jasota.

3. Lagin bat bertan behera uzten bada, laborategiaren zuzendariak horren berri eman beharko dio Dopinaren Aurkako Organoak izendatutako pertsonari edo organoari.

42. artikulua. «B» azpi-laginaren zaintza

Kontrol jakin bateko bigarren lagina («B» azpi-lagina) lehenengo lagina («A» azpi-lagina) analizatu duen laborategi berean zaindu beharko da, behar bezala gordeta. Modu horretan, behar izanez gero, bigarren analisi edo kontraanalisi bat egin ahal izango da, baldin eta azken analisi hori ezarritako epean eskatzen bada.

7. ATALA EMAITZEN BERRI EMATEA

43. artikulua. Konfidentziasuna gorde beharra

Dopin arloko ustezko arau-hausteren baten inguruko ikerketa-prozeduretan parte hartzen ari diren pertsona guztiek gorde beharko dute jardueren inguruko sekretua.

44. artikulua. Emaitza bidaltzea

1.- Laborategiak analisiari buruzko akta bidaliko dio Dopinaren Aurkako Organoari. Komunikazio hori modu konfidentzian egingo da.

2.- Laborategian substantziaren bat antzematen bada, eta substantzia horrek, arauz deskribatutako edozein baldintza dela-eta, emaitza positiboa eman baldin badezake, laborategiak txosten bat bidaliko dio Dopinaren Aurkako Organoari, honako datu hauekin:

- a) Analisia egin duen laborategiaren izena eta helbide osoa.
- b) Txostenaren data.
- c) Analizatutako laginaren identifikazioa; hau da: kodea, laborategiaren erregistro-zenbakia eta analisiaren akta.
- d) Lagina jaso den eguna eta ordua, bai eta lagina jasotzerakoan antzemandako kanpo-egoerak eta laginari buruzko beste zenbait datu ere: izaera, bolumena, dentsitatea, pH-a eta aztertutako likidoaren itxura.

- e) Kontrolaren identifikazioa. Lehiaketaren izena, tokia eta data. Era berean, zein kirol den adierazi beharko da, eta, hala beharko balitz, zein modalitate.
- f) Analisiaren amaiera-data.
- g) Analisirako erabilitako metodoa. Eranskinetan, garatutako metodologia analitikoaren deskribapena eta masei egindako kromatogramak eta espektrogramak gehitu beharko dira.
- h) Analisiaren emaitza, bertan adieraziz identifikatutako substantziak eta, hala beharko balitz, substantzia horien kontzentrazioa edo erlazioa, desbideraketa estandarrarekin eta aldakuntza-koefizientearekin.
- i) Egokitzat jotzen diren oharrak.
- j) Laborategiaren zuzendariaren eta, hala beharko balitz, analisisiaz arduratu den pertsonaren izena eta sinadura.

45. artikulua. Animaliaen titularrari jakinarazpenak helaraztea

1.- Laborategiak emandako analisiaren aktaren bitartez eta laborategiak izan ditzakeen beste zenbait daturen bitartez, Dopinaren Aurkako Organoak egiaztatzen duenean kontrolaren emaitza positibotzat hartzeko modukoa izan daitekeela, modu konfidentzian ekingo dio laginei buruzko informazioa deskodetzeari, animalia identifikatu ahal izateko.

2.- Aurreko apartatuan jasotako kasuan nahiz emaitza negatiboen kasuan, Dopinaren Aurkako Organoak nahitaez jakinarazi beharko dio emaitza kontrola igaro duen animaliaen titularrari, bai eta kontrola bertan behera utzi dela ere, hala gertatu den kasuetan.

3.- Animalia baten laginaren «A» azpi-laginean dopin-substantziaren bat edo dopin-metodoren bat antzeman bada, Dopinaren Aurkako Organoak dokumentu bat bidaliko dio animalia horren titularrari, modu konfidentzian eta dokumentua jaso izanaren berri ematen duen prozeduraren baten bidez. Agiri horretan, substantzia edo metodo hori antzeman dela jakinaraziko zaio, eta jarraitu beharreko prozeduraren berri emango zaio. Jakinarazpen hori analisiaren akta jaso osteko hurrengo bi egun baliodunen barruan bidali beharko da.

4.- Animaliaen titularrak artikuluko honen aurreko apartatuan aipatzen den jakinarazpena jasotzen duenean, «B» azpi-laginean analisia (kontraanalisia) eskatu ahal izango dio Dopinaren Aurkako Organoari, eta, horretarako, hiru egun baliodun izango ditu, jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera. Epe hori igarota, animaliaen titularrak ez badu kontraanalisia egiteko eskatzen, «A» azpi-laginean analisiaren emaitza behin betikotzat joko da.

5.- Kontraanalisi-eskaera egiten bada, Dopinaren Aurkako Organoak horren berri eman beharko dio laborategiaren zuzendariari, aipatutako eskaera jaso osteko hurrengo bi egun baliodunak igaro baino lehen. Jasota geratu beharko da eskaera egin dela.

8. ATALA

KONTRAANALISIA ETA BERE ONDORIOAK

46. artikulua. Kontraanalisisirako zitazioa

1.-Laborategiaren zuzendariari kontraanalisisirako eskaeraren berri emanda, horrek Dopinaren Aurkako Organoari jakinaraziko dio eskatutako kontraanalisia egiteko eguna eta ordua. Gehienez ere, zazpi egun balioduneko epean egin beharko da. Kontraanalisia laborategi berean egin beharko da, «B» azpi-lagina erabilita.

2.- «B» azpi-lagina irekitzeko unean eta lagina analizatzeko prozesuan egon ahal izango da animaliaaren titularra (edo, titularra pertsona juridikoa denean, erakunde titularraren ordezkari bat) edo hark ordezkari gisa izendatutako pertsonaren bat. Era berean, bertan egon ahal izango da animaliaaren titularrak izendatutako adituren bat, laborategiari aldez aurretik eta idatziz ematen bazaio horren berri. Eskubide horri uko egiten badio, idatziz jakinarazi beharko du, kontraanalisia egiteko ezarritako egunaren eta orduaren aurretik izateko horren berri.

3.- Nolanahi ere, Dopinaren Aurkako Organoaren ordezkari bat egon beharko da «B» azpi-lagina irekitzeko unean.

47. artikulua. Kontraanalisia egitea

1.- Prozesura joateko eskubidea baliatzen duten pertsonen, Dopinaren Aurkako Organoko kidearen eta laborategiko pertsonen aurrean, kontraanalisiaren xede izango den «B» azpi-laginaren ontzia ireki beharko da, eta bertaratutakoek une horretan sinatuko dute lagina ireki izanaren akta. Hain zuzen ere, akta horretan jaso ahal izango dira antzemandako irregulartasunak, halakorik balego.

2.- Beren eskubidea baliatuz, kontraanalisiaren xede den lagina irekitzeko unean presente daudenek aukera izango dute laborategian jarraitzeko, analisiaren prozesuak irauten duen denbora guztian.

48. artikulua. «B» azpi-lagina baliogabetzea

1.-Ez da «B» azpi-laginaren analisisirik egingo, egoera hauetako bat edo gehiago dela-eta analisia baliogabetzen denean:

- a) «B» flaskoko kodeak bat ez datozenean dopin-kontrolako aktan jasotakoekin.

- b) Edukiontzi indibiduala irekitzean, «B» flaskoa apurtuta aurkitzen denean.
- c) «B» flaskoan gernu edo odol lagin nahikorik ez dagoenean. Kopuru hori kontraanalisiaren prozedura analitikoak ezin egin ahal izateko bezain txikia izan beharko da, laborategiak alde aurretik emandako txostenaren arabera.

2.-Artikulu honen aurreko apartatuan adierazitako egoeraren batek edo gehiagok eragindako baliogabetzeen kasuan, horren berri jaso beharko da «B» azpi-lagina ireki izanaren aktan, eta laborategiaren zuzendariak horren berri eman beharko dio Dopinaren Aurkako Organoari.

49. artikulua. Kontraanalisiaren emaitza

1.- Kontraanalisia amaitu eta hurrengo egun baliodunean, laborategiaren zuzendariak kontraanalisiaren akta bidaliko dio Dopinaren Aurkako Organoari, idatziz eta modu konfidentzialean.

2.- Kontraanalisiaren emaitza jasota, Dopinaren Aurkako Organoak animalia-aren titularrari bidaliko dio, jaso izanaren berri emango duen prozeduraren baten bitartez. Gehienez ere, kontraanalisiaren akta jaso eta hurrengo bi egun baliodunen barruan bidali beharko da aipatutako emaitza.

3.-Kontraanalisiak ez badu berresten «A» azpi-laginaren analisiaren emaitza, prozesua amaitutzat emango da eta dopin-kontrolaren emaitza negatibotzat hartuko da.

9. ATALA DOPIN-KONTROLAREN PROZEDURAREN AMAIERA

50. artikulua. Diziiplina-ekintzak abiaraztea

1.- Modu honetan abiaraziko dira dopin-kontrolaren emaitzaren ondoriozko arau-hausteez eragindako diziiplina-prozedurak:

- a) «A» azpi-laginaren emaitza behin betikoa denean, ez delako kontraanalisirik eskatu eta egin.
- b) Animalia-aren titularrak kontraanalisiaren emaitza jakinarazten dion dokumentua jasotzen duenean, eta dokumentu horrek «A» azpi-laginaren lehenengo analisiaren emaitza berresten duenean.

2.- Dopin-kontrolaren emaitzaren ondoriozko arau-hausteez eragindako diziiplina-prozedura abiarazteko, Dopinaren Aurkako Organoak txosten bat osatuko du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- a) Kontrola jakinarazi izanaren akta.
- b) Lehiaketa barruko dopin-kontrolaren akta.
- c) Analisiaren akta.
- d) Kontraanaliaren akta, hala beharko balitz.
- e) Gaiari buruz interesgarriak izan daitezkeen beste dokumentu batzuk.

V. TITULUA

DOPIN ARLOKO DIZIPLINA-ARAUBIDE ZEHATZAILEA

51. artikulua. Arau-haustekak

1.- Oso arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Araudi honek aipatzen dituen betebeharrak edo erantzukizunak bete ez izana, eta, ondorioz, debekatutako substantziaren baten edo substantzia horren metabolito zein markatzaileen edozein kopuru antzematea animalia baten lagin fisikoetan. Aurrekoari kalte egin gabe, debekatutako substantzia eta metodoen zerrendak kuantifikazio-muga bat aurreikusi ahal izango du substantzia jakin batzuetarako edo balorazio-irizpide berezi batzuetarako, debekatutako substantzien detekzioa ebaluatzeko.
- b) Kirolean debekatuta dauden substantziak edo metodoak erabili izana animaliekin, norbait animalia horien titularra denean edo animalia horien gaineko beste edozein erantzukizun duenean.
- c) Behar den moduan egindako jakinarazpen baten ostean, justifikaziorik gabe saihestea, uko egitea edo ez betetzea animalia dopin-kontrolera eramatearen obligazioa. Adierazitako edozein jokabidez gain, kasu honetan ere araua hautsitzat joko da, modu zehatzean: edozein pertsonak, egitez edo ez-egitez, bere borondatez saihesten duenean animalia baten laginak jasotzea, nahitaez hala egin behar denean.
- d) Artikulu honetan aipatutako dopinaren aurkako arauak hausten laguntzea, horretara bultzatzea, ahalbidetzea, egoera hori eragitea, konspiratzea, estaltzea edo beste edozein kolaboraziotan aritzea.
- e) Dopin-kontrolerako prozeduretako edozein atal oztopatu, faltsifikatu, trabatu edo manipulatu. Nolanahi ere, eta balizko beste kasu batzuei kalte egin gabe, letra honetan xedatutakoaren arabera arau-haustea egon dela ulertuko da arduradunak jokabide hauetakoren bat izan duenean:

- Dopin-kontrolerako ofizial baten lana oztopatzea edo oztopatzen saiatzea.
 - Dopinaren aurkako eskumena duten agintariei iruzurrean oinarritutako informazioa ematea.
 - Lekuko batekin larderiaz jokatzeko edo horretan saiatzea.
- f) Lehiaketan nahiz lehiaketatik kanpora, esparru horietan debekatuta dauden substantziak edukitzea edo debekatutako metodoak erabiltzeko beharrezkoak diren elementuak edukitzea, horiek eman edo aplikatzeko baimenik ezean, edo legez zein araudiz nahikotzat jo daitekeen beste justifikaziorik ezean. Baimena edukitzeak ez du esan nahi araua hautsi daitekeenik, baldin eta arduradunek duten substantzia edo metodo debekatuen kopurua baimenak babesten duen erabilera soilari dagokiona baino handiagoa bada, eta, ondorioz, arrazoiz pentsa badaiteke substantzia edo metodo horiek agindu honen lehenengo apartatuko h) letran aurreikusitako trafikora bideratuta daudela.
- g) Animaliei substantzia debekatuak eman, eskaini, ahalbidetu edo hornitzea, edo animaliekin metodo debekatuak erabiltzea, lehiaketan nahiz lehiaketatik kanpora.
- h) Debekatutako substantzia eta metodoen trafikoa.
- i) Araudi honetan xedatutakoaren arabera ezarritako kautelazko neurri edo zigorrak haustea.
- j) b), e), g) eta h) letretan deskribatutako jokabideetan aritzen saiatzea, trafikoaren kasuan jokabide hori ez bada delitua.
- k) Dopatzaileak izateagatik debekatuta dauden substantziak dituzten produktuak edukitzea, merkaturatzea edo banatzea abeltzaintza arloko establezimenduetan.

2.- Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) 1. apartatuko a), b) eta f) letretan deskribatutako jokabideak, zerrendan "substantzia zehatzak" izenpean identifikatuta dauden substantziei dagozkienean, horiei buruz ari direnean edo horiek dituztenean xede.

Jokabide hauek arau-hauste larritzat hartu ahal izateko, araua hautsi duenak justifikatu beharko du nola sartu den substantzia hori animaliaaren organismoan edo zerk justifikatzen duen berak substantzia hori eduki izana. Era berean, modu nahikoan frogatu beharko du substantzia horren helburua ez dela animaliaaren kirol-

errendimendua hobetzea edo errendimendua hobetzeko asmoz erabilitako beste substantziaren bat estaltzea. Zigorraldiaren murrizketa aztertzeko kontuan hartuko den irizpidea ustez araua hautsi duenaren erru-maila izango da.

Frogak nahikoak direla ulertu ahal izateko, araua hautsi duenak bere deklarazioa babesten duten frogak aurkeztu beharko ditu, eta, froga horiei esker, diziplina-organoak iritzi beharko dio ez dela asmorik egon kirol-errendimendua hobetzeko edo errendimendua hobetzen duen substantziaren bat estaltzeko.

- b) Animalia-aren titularrak Dopinaren Aurkako Organoari nahitaez eman behar dion abeltzaintza arloko tratamenduei buruzko informazioen eta komunikazioaren inguruko obligazioak ez betetzea, araudi honek aipatzen dituen medikamentuak erabiltzeko baimenak lortzeari dagokionez.
- c) Araudi honen aplikazio-esparruaren menpeko pertsona batek bere borondatez jasotzea kirolarekin edo abeltzaintzarekin erlazionatutako zerbitzu profesionalak, dopinaren aurkako borrokaren arloko arau-hausteren batengatik zigorraldia betetzen ari den beste edozein pertsonak emandakoak, baldin eta zigorraldi hori EAEko, Espainiako edo atzerriko agintariak jarritakoa izan bada, Espainian edo Espainiatik kanpora dopin-delituren batengatik kondenatua izan bada, edo, araudi honen arabera, dopintzat hartutako gertakariengatik zigorra jaso badu maila profesionalean edo diziplina arloan. Kasu horietan, animalia-aren titularrak eta zerbitzuak eman dituenak zer dioten entzun beharko da zehapen-prozeduraren instrukzioan.

52. artikulua. Zigorrak

1.- Aurreko artikuluko 1.a), b) eta f) apartatuetan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia bi urtez etenda izatea, eta 3.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

Hala ere, lizentzia lau urtez etengo da, araua ez denean substantzia zehatz batekin hautsi, edo, hala izanik ere, Dopinaren Aurkako Organoak frogatzen duenean arau-haustea nahita egindakoa izan zela.

Araua ez bada hautsi substantzia zehatz batekin, inplikaturako pertsonak frogatu ahal izango du arau-haustea ez zela izan nahita egindakoa, eta, kasu horretan, etenaldiak bi urteko iraupena izango du.

Eskumena duen organoak baloratu beharko du araua nahita hautsi den edo ez, ondoren zigorra jarri ahal izateko. Edonola ere, ulertuko da ez dela asmorik egon, egileak ez bazekien jokabide horrekin dopinaren aurkako arauak hausteko arrisku esanguratsua zegoela.

Ulertuko da kontrako emaitza analitiko baten ondoriozko arau-haustea ez dela nahita egindakoa izan, soilik lehiaketan debekatutako substantzia zehatz bati dagokionean, baldin eta egiaztatu badaiteke substantzia hori lehiaketatik kanpora baino ez zela erabili.

Kontrako emaitza analitiko baten ondoriozko arau-haustea ez da nahita egindakotzat hartuko, soilik lehiaketan debekatutako substantzia ez-zehatz bati dagokionean, baldin eta egiaztatu badaiteke substantzia hori lehiaketatik kanpora baino ez zela erabili, kirol-jardunarekin loturarik ez zeukan testuinguru batean.

2.- Aurreko artikuluko 1.c) eta e) apartatuetan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia lau urtez etenda izatea, eta 12.001 eurotik 40.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

Hala ere, dopin-kontrolak igarotzeko obligazioa betetzen ez denean, frogatu ahal izango da arau-haustea ez zela nahita egindakoa izan, eta, kasu horretan, etenaldiak bi urteko iraupena izango du.

Kasu horietan, zehapen-prozeduraren hasierari buruzko jakinarazpena jaso ostean, arau-haustearen ustezko arduradunak bere borondatez onartzen badu arau-haustea existitzen dela, zigorra ere murriztu ahal izango da kasuaren gorabeheren arabera; zehazki, lizentziaren etenaldia bi urtera arte murriztu ahal izango da.

3.- Aurreko artikuluko 1.g) eta h) apartatuetan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia etenda izatea lau urteren eta behin betiko gaitasungabetzearen artean, eta 40.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea. Dopinaren Aurkako Organoak jakingo balu zigortutako gertakaria kirol arlokoa edo dopinaren aurkakoa ez den arau-haustea izan daitekeela, agintaritzak judizialei edo dagokien erakundeei jakinaraziko lieke.

4.- Artikuluko 1.d) apartatuan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia bi eta lau urteren artean etenda izatea, eta 12.001 eurotik 40.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

5.- Aurreko artikuluko 1.k) apartatuan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia bi urtez etenda izatea, eta 3.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

6.- Aurreko artikuluko 1.i) apartatuan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia etenda izatea hautsitako zigorrean ezarritako zigorrari dagokion denbora-tarte berean, eta 12.001 eurotik 40.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea. Etenaldi hori hasieran ezarritakoari gehituko zaio.

7.- Aurreko artikuluko 1.j) apartatuan aurreikusitako arau-hauste oso larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia etenda izatea saiaturako jokabideari legokiokeen denbora-tarte berean, eta jokabide horri legokiokeen zenbateko bereko isuna ordaintzea.

8.- Aurreko artikuluko 2.b) apartatuan aurreikusitako arau-hauste larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia bi urtez etenda izatea, eta 12.001 eurotik 40.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

Hala ere, etenaldia urtebetara murriztu ahal izango da, baldin eta Dopinaren Aurkako Organoak, kasuaren gorabeheren arabera, ulertzen badu araua ez dela hautsi dopin-kontrolak saihesteko asmoz.

9.- Aurreko artikuluko 2.a) apartatuan aurreikusitako arau-hauste larrien zigorra honako hau izango da, baldin eta inplikaturako pertsonak egiaztatzen badu ez zeukala errurik edo arduragabekeria esanguratsurik: ohartarazpena edo federazio-lizentzia bi urtez etenda izatea, eta 3.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea. Arau bera aplikatuko da frogatzen denean debekatutako substantzia kutsatutako produktu batetik zetorrela.

10.- Aurreko artikuluko 2.c) apartatuan aurreikusitako arau-hauste larrien zigorra honako hau izango da: federazio-lizentzia urtebete eta bi urteren artean etenda izatea, eta 3.001 eurotik 12.000 eurora bitarteko isuna ordaintzea.

11.- Arau-hauste baten ondorioz federazio-lizentzia eteten bada edo bizi osorako kentzen bada, eta arau-hauste hori aldeztatik lizentziarik ez zeukan pertsonaren batek egin badu, honako hau izango da ezarriko den zigorra: lizentzia eskuratzeko eskubidea galaraztea, lizentzia daukatenezat ezarritako denbora-tarte berean.

53. artikulua. Dopinaren arloan zigorrak ezartzeko irizpideak

1.- Aurreikusitako zigorrak proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz eta kasuan kasuko gorabehereri erreparatuz ezarriko dira; bereziki, araua hautsi duenaren ezagutzaren, erruduntasun-mailaren eta bere funtzioek duten erantzukizun-mailaren inguruko eta eragindako kalteen inguruko gorabehereri erreparatuz.

2.- Diziiplina-erantzukizunetik salbuesten duen gorabeheratzat hartuko da zehapen-prozedurak eragindako pertsonak egiaztatzea, kasu zehatz horretan, berak ez duela inolako errurik edo arduragabekeriarik izan. Egoera hori gertatzen bada, pertsona horrek, erantzukizunetik salbuetsita geratzeko eta zigorra saihesteko, justifikatu egin beharko du nola sartu zen substantzia debekatua animalia-organismoan.

Kasu horretan, diziiplina-organoak xedatuko du inplikaturako pertsonak ez duela inolako arau-hausterik egin, dopin arloan arau-hauste bat baino gehiago egin izanaren ondorioetarako.

3. Honakoak hartuko dira inguruabar aringarritzat:

- a) Arau-haustearen arduradunaren jokabidean erru edo arduragabekeria larririk ez egotea, eta hori behar bezala egiaztatuta egotea. Kasu horietan, diziiplina-organoak etenaldia murriztu ahal izango du, gorabehera hori gertatu ezean aplikagarria izango litzatekeen etenaldiaren erdira arte.

Egindako arau-hausterako aurreikusitako zigorra federazio-lizentziaren bizi osorako gaitasungabetzea denean, agindu honen arabera etenaldi murriztua ezin izango da zortzi urtetik beherakoa izan.

- b) Arau-haustea egin duenak bere borondatez onartzen duenean bere jokabideak dopinaren aurkako arauak hautsi dituela, eta aitortza hori eskumena duen organoaren aurrean egin badu gertakari horiengatik erantzukizuna eskatzeko edozein jakinarazpen-saiakera jaso baino lehen; betiere, aitortza baldin bada arau-haustearen froga bakarra une horretan.

Kasu horietan, araua hautsi izanagatik etenaldia murriztu ahal izango litzateke; zehazki, halakorik gertatu ezean aplikagarria izango litzatekeen denbora-tartearen erdira arte.

- c) Araudi honetako 51.1.c) eta e) artikuluan aurreikusitako kasuetan, zehapen-prozedura hasi eta berehala aitortzen denean dopinaren aurkako arauak hautsi izana. Kasu horretan, etenaldia gutxienez bi urtera arte murriztu ahal izango da, arau-haustearen larritasunaren eta erantzulearen erruduntasun-mailaren arabera.
- d) Inplikaturako pertsonaren lankidetzat, laguntza esanguratsua eman duelako eta, horri esker, jakin edo frogatu ahal izan delako dopinaren aurkako arauak hautsi direla edo Zigor Kodearen arloko delitu bat egon dela edo beste pertsonaren batek arau profesionalak urratu dituela.

4.- Ezein murrizketa aplikatu aurretik, araudi honetan ezarritako arauekin bat etorritik erabakiko da aplikagarria den etenaldia. Artikulu honetan aurreikusitako inguruabar aringarri bi edo gehiago badaude eta pertsona horrek etenaldia murrizteko eskubidea egiaztatzen badu, egindako arau-hausteari legokiokeen zigorra murriztu ahal izango litzateke, inolako aringarririk gabeko kasuetan aplikatu beharko litzatekeenaren laudenera arte.

Inguruabar aringarriak dituen arau-haustea pertsona horrek egindako bigarrena bada, aplikagarria den etenaldia araudi honen arabera finkatuko da lehenengo eta behin, eta dagokion murrizketa aplikatuko zaio dagokion denbora-tarteari. Inguruabar aringarriak aplikatu ostean, etenaldia inolako aringarririk gabeko kasuetan aplikatu beharko litzatekeenaren laurdena izango da, gutxienez.

54. artikulua. Arau-hauste bat baino gehiago egitea

1.- Dopinaren aurkako arauak lehen aldiz hautsi eta 10 urteko epean bigarren arau-hausteren bat eginez gero, honako zigor hau ezarriko da: federazio-lizentzia etetea, ondoko denbora-tarte hauetatik luzeenean:

- a) Sei hilabete.
- b) Dopinaren aurkako arauak lehenengoz haustean ezarritako etenaldiaren erdia, aplikatu zitezkeen aringarriak kontuan hartu gabe.
- c) Bigarren arau-hausteari aplikatu beharko litzaiokeen etenaldiaren bikoitza, lehenengo arau-haustea balitz bezala hartuta, eta aplikatu zitezkeen aringarriak kontuan hartu gabe.

2.- Dopinaren aurkako arauak lehen aldiz hautsi eta 10 urteko epean hirugarren arau-hausteren bat eginez gero, kirol-lizentzia betiko kenduko da, salbu eta aringarri bat edo gehiago gertatzen badira edo araudi honetako 51.2.a) artikulua hautsi bada; izan ere, kasu horretan, ezarritako etenaldia ezin izango da izan zortzi urte baino txikiagoa.

Araua behin baino gehiagotan hautsi izanaren kasu guztietan, diruzko zigorra ere ezarriko da, araudi honekin bat etorriz.

3.- Ezin izango da zigorrik jarri araua behin baino gehiagotan hautsi izanagatik, lehenengo zigorra ez bazaio legez jakinarazten zigortuari. Kasu horretan, beste zehapen-prozedura bat izapidetuko da bi arau-haustek egin izanagatik, eta arau-hauste bakartzat hartu eta zigorrik gogorrena jarriko da.

4.- Aurreko apartatuan aurreikusitako arau bera aplikatuko da, jakinez gero beste arau-hausteren bat dagoela lehenagotik. Lehenengo arau-hauste horren berri izaterakoan zehapen-ebazpena eman bazen, ebazpen osagarria emango da bigarren arau-haustea zigortzeko, eta zigor hau jarriko da: zigorrik gogorrenaren iraupenera heldu arteko etenaldi osagarria, eta arau-hauste horrengatik jarriko litzatekeenaren baliokidea den isuna. Lehenengo arau-haustearen garaiko lehiaketa guztietan lortutako emaitzak baliogabetu egingo dira. Era berean, lehiaketa hartan lortutako domina, puntu eta sari guztiak galduko dira, bai eta emaitza guztiak ere.

5.- Dopinaren Aurkako Organoak beste agintari batzuekin kontrastatuko du aurretik ere arau-hausterik egon ote zen, eragindakoa beste zehapen-prozedura batzuen xede izan denean.

55. artikulua. Diruzko zigorra jartzea

1.-Kirol-jarduera horri lotuta diru-sarrerak lortzen direnean, isunak jarri ahal izango dira zigor gisa.

2.-Ordaindu ezean, ezarritako isunak indarrean dagoen legedian aurreikusitako mekanismoen bitartez betearaziko dira.

56. artikulua. Emaitzak baliogabetzea

1.- Araudi honetan aurreikusita dagoen jokabideren bat izatea (lehiaketa barruan arau-hausteren bat egitea, eta egoera hori lehiaketa barruko kontrol batean antzematea) lehiaketa horretan lortutako emaitzak automatikoki baliogabetzeko arrazoia izango da. Ondorioz, puntu eta sari guztiak galduko dira, eta lehiaketa horretan lortutako emaitza oro baliogabetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, salbuespenen bat edo erantzukizuna arintzen duen arrazoiren bat egon zein ez.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kasutik aparte, kirol-ekitaldi batean edo ekitaldi horrekin lotuta araudi honetan aurreikusitako arau-hausteren bat egin bada, kirol-ekitaldi horretan lortutako emaitza guztiak baliogabetu ahal izango dira. Baliogabetze horren ondorioz, lehiaketa horretan lortutako puntu eta sari guztiak galduko dira, eta kirol-ekitaldi horretan lortutako emaitza oro baliogabetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Aurrekoari kalte egin gabe, frogatzen bada arau-hauste horretan ez zela inolako errurik edo arduragabekeriarik egon, arau-haustea egin zenekotik aparteko beste lehiaketetan lortutako emaitzak ez dira baliogabetuko, salbu eta egindako arau-haustek lehiaketa horietan lortutako emaitzaren eraginpean egon badaitezke.

3.- Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitakoaz gain, baliogabetuta geratuko dira honako emaitza guztiak: zigorra eragin zuen dopin-kontrolaren egunetik edo arau-haustearen egunetik aurrerako lehiaketetatik hasi, eta behin-behineko etenaldia edo zigorra ezarri artean lortutako emaitza guztiak, baliogabetze horretatik eratorritako ondorio guztiak aplikatuz, salbu eta behin-behineko etenaldiari edo zigorrari buruzko erabakia inplikaturako pertsonari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik atzeratu bada, eta lehiaketa horietan lortutako emaitzak ez badaude egindako arau-haustearen eraginpean. Baliogabetze horren ondorioz, lehiaketa horretan lortutako puntu eta sari guztiak galduko dira, eta kirol-ekitaldi horretan lortutako emaitza oro baliogabetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

57. artikulua. Zigorren eraginkortasuna eta kirol-lizentzia lortzeko gaitasuna galtzea

1.- Araudi honetan aurreikusitako zigorrak ezartzen direnean, ezin izango dira kirol-lizentziari dagozkion eskubideak lortu edo baliatu, edozein lurralde-esparrutan eta legedian aurreikusitako terminoetan, eta ezarritako zigorraren izaerak hala eskatzen duenean.

2.- Dopinaren aurkako arloan eskumena duten agintariek emandako edozein ebazpen berehala aitortuko da, Dopinaren Aurkako Munduko Kodean ezarritakoarekin bat badator eta erakunde horren eskumen-esparruari badagokio.

Dopinaren Aurkako Organoa arduratuko da aipatutako aitopena egiteaz, ofizioz edo interesdunek eskatuta, horren jatorriari buruzko zalantzak sortzen direnean.

Kasu bietan, eta dagokion prozedura izapidetzen ari den bitartean, lizentziaren ondorioak behin-behinean etengo dira. Behin-behineko etenaldiaren iraupen-epea jatorrizko ebazpenean ezarritako gaitasungabetzearen iraupenaren baliokidea izango da, gehienez ere.

3.- Etenaldiak irauten duen bitartean, zigortutako pertsonak ezin izango du parte hartu inolako lehiaketa edo kirol-jardueratan, modu batean ere ez. Hala ere, hezkuntza- edo errehabilitazio-programetan parte hartu ahal izango du, aldez aurretik Dopinaren Aurkako Organoaren baimena lortuta.

Era berean, denbora-tarte horretan ezin izango du federazio-lizentziarik lortu, zigortutako lizentzia eman zuen federazioa ez den beste edozeinetan.

Zigortutako pertsonak hezkuntza- edo errehabilitazio-programetan parte hartzeko baimena eskatu ahal izango dio Dopinaren Aurkako Organoari.

4.- Zigorak irauten duen bitartean, dopinaren aurkako arauak edozein modutan hautsi izanagatik zigortuta dauden pertsonak ezin izango dira sartu abere-probak egiten ari diren toki edo espazioetara. Debeku hori abere-probekin lotutako edozein ekitalditan ere aplikatuko da (aurkezpenak, pisaketak, sari-banaketak eta abar).

58. artikulua. Errehabilitazioa

Dopinagatik zigortutako pertsona batek errehabilitazioa lortu dezan, egiaztatu beharko du lehiaketarako dituen animaliek egiaztatze-kontrolak igaro dituztela, aldez aurretik Dopinaren Aurkako Organoari eskaera eginda. Era berean, egiaztatu beharko du zigorra eta titulu honetan aurreikusitako neurri osagarri guztiak oso-oso bete dituela. Egiaztapenerako dopin-kontrol horien kostua errehabilitazioa eskatu duen pertsonak ordainduko du. Dopinaren Aurkako Organoak erabakiko du errehabilitazioa eskatu duen pertsonaren zein animaliak (batek edo gehiagok) igaro beharko dituen egiaztapenerako dopin-kontrolak.

59. artikulua. Non bis in ídem printzipioa

1.-Diziplina-organoak bertan behera utziko du prozeduraren izapidea, delitu-aztarnak sumatzen direnean. Kasu horretan, berehala eman beharko dio gertakarien berri Fiskaltzari.

2.-Era berean, diziplina-organoak bertan behera utziko du prozeduraren izapidea, baldin eta, identitate hirukoitza betetzen denean (subjektuak, gertakariak eta oinarria), jakiten badu gertakari horiek zigor-bidean ikertuak izaten ari direla. Hala ere, gerora berriro ekin dakiok prozedurari, hala beharko balitz.

3.- Izapidegileak jakin badu beste zehapen-prozedura bat egiten ari dela gertakari berberak direla-eta, berehala emango dio horren berri zehapen-organoari. Organo hori, prozedura gelditu gabe, harremanetan jarriko da prozedura ebazteko organo eskudunarekin, eta, horrela, beren artean koordinatu ahal izango dira, dagozkion aginduak eraginkortasunez aplikatzeko.

4.- Gertakari beragatik administrazio-zigorra eta diziplina-zigorra jarri ahal izango da, soil-soilik zuzenbide-oinarriaren identitaterik ez dagoenean.

60. artikulua. Erantzukizuna iraungitzea

Hauek dira erantzukizuna osorik edo zati batean iraungitzeko arrazoiak, dagokionaren arabera:

- a) Zigorra bete izana.
- b) Arau-haustearen preskripzioa. Arau-haustearen preskripzioa hurrengo artikuluan dago aurreikusita.
- c) Kirolean debekatuta dauden substantzia edo metodo dopatzaileak ematen, hornitzen edo ahalbidetzen dituzten pertsonak edo talde antolatuak antzematen, aurkitzen eta eskumeneko organoen esku jartzen kolaboratu izana. Kasu horretan, iraungipena partziala izango da.
- d) Erruztatutako edo zigortutako pertsona hil izana.
- e) Erruztatutako edo zigortutako pertsona juridikoa azkendu izana.
- f) Zigorren preskripzioa.
- g) Zigorra barkatu izana.

61. artikulua. Preskripzioa

1.- Lege honetan ezarritako arau-hausteei 10 urtera preskribatuko dute. Arau-hausteen preskripzio-epea araua hautsi zen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Zehapen-prozedura abiarazi izanak etengo du preskripzioa, interesduna jakinaren gainean dela.

2.- Oso arau-hauste larriengatik ezarritako isunek hiru urtera preskribatuko dute, eta arau-hauste larriengatik ezarritakoek, berriz, bi urtera. Lizentzia-etenek, gaitasungabetzeek edo eskubideak kentzen dituzten zigorek bost urtera preskribatuko dute, oso arau-hauste larriengatik direnean; eta hiru urtera, arau-hauste larriengatik direnean. Zigorren preskripzio-epea zigorren ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Betearazpen-prozedura abiarazi izanak etengo du preskripzioa, interesduna jakinaren gainean dela.

62. artikulua. Animalien egoera, dopin-arauak hautsi direla egiaztatzean

1.- Egiaztatzen denean araudi honetan aurreikusitako Animalien Erregistroan inskribatuta dauden animalien titularrak dopin-arauak hautsi dituela, artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

2.- Arau-haustea baldin bada, dopin-kontrola egin ostean, debekatutako substantzia edo metodo dopatzaileraren bat aurkitu izana animalia batean, animalia horrek ezin izango du parte hartu abere-probetan, animalia baten titularra zigortuta edo gaitasungabetuta dagoen denbora-tartean.

3.- Artikulu honen aurreko apartatua aurreikusitako neurriak berdin balioko du arau-haustearen unean animalia baten titularra zenarentzat, zein aipatutako unean ondoren animalia horren titular bihurtu nahi izan duen beste edozein pertsonarentzat.

4.- Debekatutako substantzia edo metodoa antzeman zaion animaliak berriz ere parte hartu ahal izango du abere-probetan, aldez aurretik gaintzen baldin badu Dopinaren Aurkako Organoak egiaztatpenerako egindako dopin-kontrola. Egiaztatpenerako dopin-kontrol horren kostua animalia baten titularrak ordaindu beharko du.

5.- Arau-haustea baldin bada, dopin-kontrola egin ostean, debekatutako substantzia edo metodo dopatzaileraren bat aurkitu izana animalia batean, etenaldi-zigorrean edo gaitasungabetuta dagoen titularraren gainerako animaliek lehiaketetan parte hartu ahal izango dute zigorrak edo gaitasungabetzeak irauten duen bitartean, baldin eta titulartasuna modu efektiboan aldatzen bada. Animalia baten titulartasun-aldaketa behar bezala inskribatu beharko da araudi honetan aurreikusitako Erregistroan, eta dagoeneko inskribatuta dagoen eta, arau-haustearen unean, federazio-lizentzia baten jabe den beste titular baten alde egin beharko da.

6.- Artikulu honen aurreko apartatua aurreikusitako modu berean jokatu da, baldin eta animalia baten titularra etenaldiarekin edo gaitasungabetzearekin zigortzen badute, baina dopin-kontrol batean animalia bati debekatutako substantzia edo metodo dopatzaileraren bat aurkitu izana ez den arau-haustearen bat egin izanagatik.

VI. TITULUA DOPIN ARLOKO ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA

63. artikulua. Eskumena

Kirol federazioaren zehapen organoak ezagutarazi eta ebatziko ditu araudi honetan aurreikusitako animalien dopin arloko zehapen-prozedurak.

64. artikulua. Hasiera

1.- Araudi honetan aurreikusitako animalien dopin arloko zehapen-prozedura diziplina-organoak hasiko du:

- a) Dopinaren aurkako laborategiko analisisien behin betiko emaitzak jasotzerakoan.
- b) Dopin-arauak hautsi ditzaketen ustezko jokabideen berri duenean, bai salaketagatik, bai horren ziurtasuna duelako, edo bai eskumeneko organo eta erakundeen komunikazioen bat jaso duelako, eta, bereziki, dopinaren aurkako kontroletan parte hartzen dutenen informazioa jaso duelako.

2.- Dopin arloko diziplina-organoak honakoei jakinaraziko die diziplina-espedientearen hasiera:

- a) interesdunari, eta, hala badagokio, interesdunaren erakundeari.
- b) aplikagarriak diren eta indarrean dauden xedapen arauemaileen arabera, jakinarazpena jaso behar duten erakunde publiko edo pribatuei.
- c) analisia egin zuen laborategiari. Ustezko arau-haustearen preskripzio-data adierazi beharko da bertan, pertsona hori identifikatu gabe; eta, hain zuzen ere, hartutako lagin eta egindako analisi guztiak kontserbatu beharko dira epe horren barruan.

3.- Diziplina-espedientea abiarazten duen probidentziak izapidegile bat izendatu beharko du, eta pertsona hori Zuzenbidean Lizentziaduna izango da.

4.- Akordioak zortzi eguneko epe komun eta luzaezina emango dio interesdunari, alegazioak tramitatu eta frogak proposatzeko.

65. artikulua. Kautelazko neurriak

1.- Delitutzat har daitezkeen ustezko jokabideengatik prozesu penala izapidetzen denean, diziplina-organoak erabaki ahal izango du, hala badagokio eta interesdunari alde zuzenaren alde emanda, inplikatuaren federazio-lizentzia behin-behinean etetea. Behin-behineko etenaldi hori automatikoki luzatu ahal izango da, erabakia hartu zuen agintaritzaren beraren akordio bidez.

2.- A laginaren analisisian kontrako emaitza analitikoak antzematen bada, eta debekatutako substantzia eta metodoen zerrendaren arabera «substantzia zehatza» ez den substantzia debekaturen bat aurkitu bada, ezinezkoa izango da kirol-lizentziari dagozkion eskubideez baliatzea, eta debeku hori berehalakoa izango da. Neurri hori dopin arloko zehapen-prozedura abiarazi izanari buruzko ebazpenarekin batera jakinaraziko da. Neurria birplanteatzeko asmoz, eragindakoak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hartutako aginduaren inguruan, alegazioak aurkezteko eta frogak proposatzeko emandako epe komun eta luzaezinean.

3.- Aurreko apartatuetan ezarritakoari kalte egin gabe, dopin arloan indarrean dagoen beste edozein zehapen-prozeduratan, ebazteko eskumena duen organoak edozein unetan hartu ahal izango ditu emango den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren behin-behineko neurriak (federazio-lizentzia behin-behinean eteteari buruzkoa ere bai), arrazoitutako akordio bidez eta entzunaldiaren zein proportzionaltasunaren printzipioak errespetatuz. Federazio-lizentzia behin-behinean eteteari buruzko neurria soil-soilik hartu ahal izango da prozeduraren xedea oso arau-hauste larri gisa tipifikatutako gertakariz osatuta dagoenean.

4.- Lizentzia behin-behinean eteteari buruzko erabakia, aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera hartutakoa, automatikoki jasota dagoela ulertuko da, zigorra ezartzeko eskumena duen organoak ez badu prozedura hiru hilabeteko epean ebatzi, abiarazi zenetik zenbatzen hasita, salbu eta atzerapen hori zehapen-prozedurapean dagoenari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik gertatu bada.

5.- Kautelazko neurriaren iraupena ezarritako etenaldiak iraungo duen denbora osotik kenduko da, baldin eta kaltetuak ezarritako behin-behineko etenaldia errespetatu badu.

66. artikulua. Abstenitzea eta errekusatzea

1.- Izapidegileari administrazio-prozedura erregulatzen duten arau-xedapenetan aurreikusita dauden abstenitzeko eta errekusatzeko zioak aplikatuko zaizkio.

2.- Interesdunek bi (2) egun balioduneko epean baliatu ahal izango dute errekusatzeko eskubidea, izendapenaren probidentziaren berri izan eta hurrengo egunetik hasita. Diziiplina-organoak hiru (3) egun balioduneko epean emango du planteatutako errekusazioari buruzko ebazpena, errekusazioa planteatu duenak idazkia aurkezten duen unetik hasita.

67. artikulua. Instrukzioa

1.- Alegazioen idazkia eta frogen proposamena edo ekarpena jasota, izapidegileak modu arrazoituan emango du horien onarpenari eta proposatutako frogak gauzatzeari buruzko ebazpena, edo, bestela, ofizioz egokitzen jotzen direnei buruzkoa. Proposamenak gauzatzeko epea hamar eta hogeita hamar egun bitartekoa izango da.

2.- Diziiplina-organoak eta/edo izapidegileak txostenak eskatu ahal izango dizkiete mediku edo teknikari adituei, eta tramitazio-epea bat etorriko da frogak gauzatzeko epearekin.

3.- Prozeduraren izapidegileak arrazoitutako ebazpen bidez baino ezin izango ditu baztertu interesdunek proposatutako frogak, desegokiak direnean. Izapidegileak ebazten duenean proposatutako frogak onartzen edo baztertzen dituela, ezin izango da errekurtsorik jarri horren aurka.

4.- Frogak gauzatu eta txostenak igorri ostean, izapidegileak ebazpen-proposamena idatziko du, gehienez ere bost egun balioduneko epean. Era berean, interesdunei jakinaraziko die, eta entzunaldi-izapidea eskainiko die bost eta hamar egun baliodunen arteko epean.

5.- Interesdunak eskaturik frogak egin behar direnean, eta horien gastuak ez baditu diziplina-organoak ordaindu behar, dirua aurreratzeko eskatu ahal izango du, eta, frogak egindakoa, gastuen behin betiko kitapena egingo da. Gastuak likidatzeko, beren errealitatea eta zenbatekoa egiaztatzen duten frogagiriak elkartuko dira.

6.- Prozeduraren instrukzioa amaitzen denean, izapidegileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio diziplina-organoari, dagokion ebazpena eman dezan. Era berean, interesdunari jakinaraziko zaio, eta entzunaldi-izapidea eskainiko zaio ebazpen-proposamenari alegazioak aurkez diezazkion, zortzi eguneko epe luzaezinean. Entzunaldi-izapidea egin ostean, edo interesdunak adierazten badu ez duela eskubide horretaz baliatzeko asmorik, ebazpena emango da, bestelako izapiderik egin gabe.

68. artikulua. Ebazpena

1.- Dopin arloko diziplina-organoaren ebazpenak amaiera ematen dio diziplina-prozedurari, eta halaxe erabakiko dira interesdunek planteatutako auziak eta espedientetik eratorritakoak. Era berean, ebazpenean jaso beharko dira gauzatutako frogen balorazioa, egitateen zehaztapena eta erantzukizunik badagoen edo ez, eta adieraziko da erantzukizunik aitortu den, nor edo nortzuk diren erantzuleak, zein edo zeintzuk diren egindako arau-hausteak, eta zein edo zeintzuk diren jarritako zigorrak.

2.- Erantzukizunaren preskripzio, iraungipen edo salbuespenerako arrazoiak daudenean, ebazpenak horren berri emango du, eta, hala badagokio, jarduketak artxibatzea erabakiko du.

69. artikulua. Ebazteko gehienezko epea eta iraungitzea

1.- Dopin arloko balizko arau-hausteengatiko espedienteak diziplina-organoak ebatzi beharko ditu, gehienez ere hamabi hilabeteko epean, laborategiak lortutako azken emaitzari buruz diziplina-organoari igorritako azken komunikazio frogagarriaren egunetik zenbatzen hasita, edo ustezko arau-haustearen berri izan zen egunetik zenbatzen hasita.

2.- Aurreko apartatuak ezarritakoa gorabehera, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea bertan behera geratu ahal izango da, 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako kasuetan. Etenaldiak ondorioak izango ditu, kasuaren arabera, instruitzeko edo ebazteko eskumena duen organoak erabakia hartzen duen egunetik aurrera, eta erabaki horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

3.- Ebazteko gehienezko epea igaro, eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, prozedura iraungi egingo da. Iraungipen-adierazpena ofizioz edo interesdunak eskatuta eman ahal izango da, eta, ondoren, jarduketak artxibatu egingo dira.

70. artikulua. Espedienteen gaineko ebazpena jakinaraztea

Diziplina-organoak dopin arloan emandako ebazpen oro, zeinak amaiera ematen baitio prozedurari, interesdunei jakinaraziko zaie; baina, era berean, informazio hori jaso behar duten gainerako erakundeei ere jakinaraziko zaie, aplikagarriak diren arau-xedapenen arabera edo ebazpen horiek eragindako erakundeak badira.

71. artikulua. Ebazpenen betearazpena

Eskumena duten diziplina-organoek emandako zigorrak berehala betearaztekoak dira, salbu eta jarri beharreko balizko errekurtsua ezagutu behar duenak zigor hori bertan behera uztea erabakitzen badu.

72. artikulua. Errekurtsua

1.- Diziplina-organoak dopin arloan emandako ebazpenak administrazio-bidean berrikusi behar direnean, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean egin beharko da hori.

2.- Berrikuspena eskatzeko epea hamabost egunekoa izango da, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro, eta ez bada dagokion errekurtsua jarri, ebazpena irmoa izango da.

VII. TITULUA DOPINAREN AURKAKO EUSKAL AGENTZIAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO HITZARMENA

73. artikulua. Dopinaren Aurkako Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena

1.- Kirol Federazioak lankidetzeta-hitzarmena sinatu ahal izango du Dopinaren Aurkako Euskal Agentziarekin, azken hori arduratu dadin araudi honetan federazio arloko diziplina-organoari esleitu zaion zehapen-diziplinaren eskumena betetzeaz, araudi honetan federazio arloko Dopinaren Aurkako Organoari esleitu zaizkion jarduerak egiteaz gain. Kasu horretan, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia arduratuko da dopin-arauak ustez hausteagatik ezarritako diziplina-espedienteak osorik izapidetzeaz, araudi honetan aurreikusitako jarduera material guztiez arduratzeaz gain.

2.- Dopinaren aurkako kontrolean eta borrokan, eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak bere gain hartzen dituen dopin arloko balizko arau-hausteen gaineko diziplina-espedienteen tramitazioan, Dopinaren Aurkako Araudi hau aplikatuko da.

VIII. TITULUA

ABERE-PROBAK EGITERAKOAN APLIKATUKO DEN DIZIPLINA-ARAUBIDE ZEHATZAILEA

74. artikulua. Arau-haustekak

Abere-probak egiteko arauei dagokienez, honako hauek oso arau-hauste larriak dira:

- a) Abere-proba antolatzea, dagokion baimena izan gabe.
- b) Dagokion baimenik ez duen abere-proba bateko edozein zereginetan parte hartzea.
- c) Abere-proba egitea, emandako baimenean agertzen ez diren baldintzetan.
- d) Abere-proba egiteko baimen-eskaerari dagokionez, datuak edo informazioak eraldatzea edo faltsifikatzea.
- e) Indarrean dagoen federazio-lizentziarik ez duten pertsonak abere-probetan parte har dezaten baimentzea.
- f) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan inskribatuta ez dauden animaliek abere-probetan parte har dezaten baimentzea.
- g) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan animaliak inskribatzeko eskaerari dagokionez, datuak edo informazioak eraldatzea edo faltsifikatzea.
- h) Zenbait ekintza edo omisio egitea, eta, horren ondorioz, eskumena duten agintariek ezin aplikatu ahal izatea abere-proben arloan aplikagarriak diren araudiak.
- i) Herri Kiroletako Euskal Federazioaren Animalien Erregistroan animalien titular gisa agertzen ez diren pertsona edo erakundeek animalien erantzule edo arduradun gisa jardun dezaten kolaboratzea edo baimentzea, kirol-praktikari dagokionez.
- j) Dopin-arauak hautsi izanagatik zigorra betetzen ari direnei abere-probak egiten ari diren toki edo espazioetara sartzeko baimena ematea edo pertsona horiek toki horietara sartzea.

75. artikulua. Zigorak

Abere-proben arauetan oso arau-hauste larriak eginez gero, zigor hauek jarriko dira:

- a) Lehenengo arau-haustearen kasuan: Lizentzia bi urtera arte etetea edo kentzea, eta 1.000 eurora bitarteko isun osagarria.
- b) Lehenengo arau-haustearen zigorra bete, eta bi urteko epean bigarren arau-hauste bat eginez gero: Lizentzia bi eta lau urte bitartean etetea edo kentzea, eta 3.000 eurora bitarteko isun osagarria.
- c) Bigarren arau-haustearen zigorra bete, eta bi urteko epean hirugarren arau-hauste bat eginez gero: Lizentzia betiko etetea edo kentzea, eta 6.000 eurora bitarteko isun osagarria.

IX. TITULUA ZIGORRAK EZARTZEKO PROZEDURA, ABERE-PROBAK EGITERAKOAN

76. artikulua. Diziplina arloko eskumena

Araudi honen VII. Tituluan aurreikusitako arau-hausteekin erlazonatutako balizko diziplina-espeditenteak ezagutu eta ebazteko eskumena kirol arloko euskal edo lurralde federazioetako diziplina-organoena izango da.

77. artikulua. Zehapen-prozedura

Araudi honen VII. Tituluan aurreikusitako arau-hausteen gaineko diziplina-prozedurak kirol arloko euskal edo lurralde federazioetako diziplina-araudietan aurreikusitakoaren arabera tramitatuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.-

Epeak zenbatzeko, kirol federazio bakoitzak egoitza duen herriko egutegi ofizialean ezarritakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-

Araudi honetan jasotako arau-igorpenak une bakoitzean indarrean daudenak dira, bai Araudia onartzen den unean aplikagarriak direnak, bai etorkizunean ordeztu ditzaketenak.

Hirugarrena.-

Dopinaren Aurkako Araudi hau euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuta dago. Hizkuntza batean edo bestean argitaratutako araudiaren artean desadostasunak edo desberdintasunak baleude, gaztelaniazko bertsioak izango luke lehentasuna, hori baita jatorrizkoa.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean jarri baino lehen abiarazitako diziplina-prozedurak eta dopinaren aurkako prozedurak aurreko araudiaren menpe egongo dira, salbu eta interesdunek, onuragarriagoak zaizkielako, araudi honetako puntu jakin batzuk baliatu nahi badituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratuko dira Dopinaren Aurkako Araudi honetan aurreikusitakoaren kontrakoak diren edo bere aurka egiten duten federazio arloko araudi edo erregelamenduak, lehenago indarrean egondakoak. Berriaz geratuko da jasota Dopinaren Aurkako Araudi honetan aurreikusitakoak indargabetu egingo dituela abere-proben dopin eta antolakuntza arloko eta federazio mailako diziplina eta zehapen esparruetako aurreikuspenak (arau-hausteak, zigorrak, diziplina-prozedurak eta abar), orain arte indarrean zeuden federazio arloko erregelamenduetan edo gainerako araudietan jasotakoak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean jarriko da, kirol federazio bakoitzaren Batzar Nagusian onartua izan ostean, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartzen duenean (Herri Kiroletako Euskal Federazioaren kasuan) edo foru aldundietako kirol zuzendaritzek onartzen dutenean (herri kiroletako lurralde federazioen kasuan), eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzen denean.